

ARGIA

ETB-K 40 URTE

Nola jarri balantza euskararen alde?

24-29. orrialdeak



#2.866 | 2024/04/14 | 4,00 €



“Benetako zigorrik ez deino Israelek ez du jarreraz aldatuko”

30 | PIERRE STAMBUL



Eskolan ortuari ematen dioten erabilera ikertu dute

33 | HEZKUNTZA



“Eskritura politikoa da, literalki, idazkera bera politikoa denean”

46 | ISAAC ROSA



HIZKI PIZTI

Ikas dezagun irakurtzen eta idazten

Jolasaren bitartez irakurtzen eta idazten ikasteko **material pedagogikoa**. Bai ikaskuntza-irakaskuntzan, bai etxeetan erabili daitekeena.

Alfabetoko hizki bakoitzak eta hortaz soinu bakoitzak **Euskal Herriko animalia bat** irudikatzen du.



30€

Bidalketa gastuak 5€.
Bidalketa doan 40€-tik gorako erosketetan.



Tailerrak

Irakurtzen eta idazten ikasiko dugu animaliekin jolasean. Umeentzat, irakasleentzat edo familientzat.

solasaldiak@argia.eus

Egileak:

Amaia Egildazu, Iñaki Sanz-Azkue, Lore Erriondo eta Eñaut Aiertzagüena.



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ILUSTRAZIOA: IÑAKI LANDA

Iritziak

- 19 | BALEREN BAKAIKOA
- 20 | GORKA MENENDEZ
- 21 | SUKAR HORIA
- 21 | EVA PEREZ-PONS
- 22 | ENEKO GORRI

Finkoak

- 40 | BIZI BARATZEA
- 44 | ARGIA KOMUNITATEA
- 45 | DENBORAREN MAKINA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 52 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

14 | DOLU PERINATALA

Bost egunekin hil zitzaien alaba Irati Unamunzaga eta Jon Arriagari. Danele Sarriugartek elkarrizketatu ditu, bai baitakite dolua tribuarekin partekatzea denentzako onura dela. Eriotza bizitzeko moduak, Osakidetzan hobetzeko dauden gauzak eta "gauzak ez direla zuri edo beltz" irakatsi digute, beste gauza askoren artean.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

GNL: Louisianako zingiretan jokoan dira munduko klima eta osasuna

Urko Apaolaza

24 | EUSKAL TELEBISTAK 24 URTE

Ardatz bertikala, erabakien adierazle

Gorka Peñagarikano

30 | PALESTINA | PIERRE STAMBUL

"Sionistek palestinarrak erreserba batzuetan edo beren lurretatik kanpo nahi dituzte"

Jenofa Berhokoirigoin

34 | HEZKUNTZA

"Eskolan ortu xume bat lantzeak testuingurua ematen digu planetan ditugun arazoez aritzeko"

Mikel Garcia

38 | GORPUTZ HOTSAK | DANIELA CANO

"Literatura izan da tristezia ulertzen lagundu didana"

Olaia L. Garaialde

46 | KULTURA | ISAAC ROSA

"Literaturak irakurlearen irudimena pizten du, baita komunitatearena ere"

Cira Crespo

Jabetza

 Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

 Ainara Rodil, Amaia Lekunberri,
Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mikel Garcia, Olaia L.
Garaialde, Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Kortza

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:





Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuontzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.


 Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA



 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kein Mensch ist illegal

Kanabisaren kontsumoa –gozamenerako– legezatu duen Europako herrialderik handiena bilakatu berri da Alemania. Oso eztabaidatua izan den lege berriaren lehen neurriari jarraiki, 18 urtetik gorako alemaniarrek kalean 25 gramo kanabis aldean eraman eta erre ditzakete eta etxean hiru landare hazi. Herbehereak, Malta eta Luxenburgok aurretik jorratutako bideari bultzada handia eman dio Europar Batasuneko lehen potentziak eta errepresioaren bidetik aldentzera ausartzen ez diren gobernuak bidea erraztu. Droga on eta txarren arteko dikotomia antzua, narkotrafiko eta mafien oinarri, pitzatzen ari da gutxika-gutxika. Eta munduan eta Euskal Herrian gehien kontsumitzen den legez kanpokotzat jotako landarea da horren aurrekaria.

JOHN M. / AFP AXIER LOPEZ





len

CANNABISGESETZ
JETZT!

GESETZ

Molle eta Etcheverry bakegileak, Parisko Auzitegian

 URKO APAOLAZA AVILA

ETAREN armak eta lehegaiak garraiatzea leporatzen diete Beatrice Molle-Haran eta Jean-Noël Etcheverry 'Txetx' bakegileei, 2016ko Luhusoko operazioaren harira. ETAREN armagabetzea gauzatzen ari ziren, eta epaituak izan dira Parisen, joan den astean.

Auziaren bigarren eta azken saioan, Terrorismoaren Aurkako Frantziako fiskaltzak zigor eskariak egin ditu: urtebeteko kartzela zigorra eskatu du Mollerentzat eta bi urtekoa Etcheverryrentzat. Hala, zigor arinak proposatu ditu prokuradoreak, bere hitzetan "zigor errukiorrak" liratekeenak. Gainera, ez haien izenak, ezta zendu diren beste bakegileenak ere –Mixel Berhokoirigoin, Mixel Bergouinan eta Michel Tubiana– ez lirateke terrorismoaren kontrako artxiboan agertuko, prokuradoreak ez duelako halakorik eskatu.

Nolanahi ere, Frantziako Estatuaren ordezkariak diskurtso gogorra egin du akusatuen kontra eta "ETAREN helburuen arabera jardutea" egotzi die: "ETAREN borondatea zen Frantziako eta Espainiako Estatuari iskin egitea".

"GERRA EZ, EKINTZA TERRORISTAK"

Azaldu du ez dagokiola epaimahaiari ETAREN amaieraren inguruko "kontakizun bat adostea". Baina segidan bere kontakizuna egin du. Zalantzan jarri du 2011n ETAK armak uzteko harturiko erabakia, 2006ko su-etenaren ostean jardun armatuarekin jarraitu zuelako: "Euskal Herrian ez da gerlarik egon, ekintza terroristak baizik", esan du prokuradoreak.

Gainera, bakegileek esku artean izandako armategiaren izaera arrisku-tsua azpimarratu du eta armak identifikatzea eragotzi eta frogak ezabatu nahi izatea ere leporatu die. Bere esanetan, Luhusoko 2016ko operazioak "ez du inolako zerikusirik 2017ko armagabetzearekin".



BAKEAREN ARTISAJAK

Defentsaren hitzetan, 2017ko apirilaren 8ko armagabetzea ez litzateke posible izango Luhusokoa gabe: "Epaitu beharrean, bakegileek gure aitortza merezi dute"

FISKALTZAREN IKUSPEGIA, "DUELA HOGEI URTEKOA"

Xatiana Cachenauf defentsako abokatuak gogor kritikatu du terrorismoaren kontrako fiskaltzaren ikuspegi hori: "Duela hogeitau urtekoa da" esan du, "nahiz eta Euskal Herrian egoera asko aldatu den". Bake Bideak elkarteak ere salatu du fiskaltzak "ikuspegi errepresibo hutsan gaketua" segitzen duela.

Defentsa lanetan ibili den beste abokatu Jean François Blancoren –eta lekuko guztien– ustez, 2017ko apirilaren 8ko armagabetzea ez litzateke posible izango Luhusokoa gabe: "Epaitu beha-

rean, bakegileek gure aitortza merezi dute". Hala, defentsako lau abokatuek auzipetuen absoluzio "garbi eta sinplea" eskatu dute.

Maiatzaren 16an emango du epaia Parisko Zigor Auzitegiak.

BAKEGILEEN MEMORIA

Etcheverryk epaiketaren amaieran salatu du bi auzipetuen kontrako zigor batek, jadanik hilda dauden bakegileen memoria zikintzea ekarriko lukeela: "Bakearen eta justiziaren aldeko pertsonak ziren", gogorarazi du.

Ildo beretik hitz egin du Bake Bideak: "Uste dugu hobengabetze batek bakarrik emango liokeela benetako zentzua Luhusoko ekintza historikoari", azaldu du ohar bidez.

ELKARRETARATZEAK

Elkarretaratzeak egin dira Euskal Herriko zazpi hiriburuetan, bakegileen errugabetzea eskatu eta elkartasuna adierazteko. Sindikatu eta eragile ugari deituta, dozenaka lagun bildu dira Bilbon, Gasteizen, Donostian, Maulen, Donibane Garazin, Baionan eta Iruñean *Errugabetzea, Euskal Herrian aro berri bat behin betiko irekitzeko* lelopean. ●

MATERIALISMO HISTERIKOA

Diferentziak



UXUE APAOLAZA LARREA

Datozen hauteskundeak bereziak dira, hauteskunde guztiak diren moduan; bat ez dela esaten diguten egunean izango da berezia, esaten digutenean “aurten gertatuko den guztia, gertatu da lehenago ere”. Asko erabakitzen omen dugu. Beldur pixka bat ematen du, ez? Zer? Zer gertatuko da biharamunean? Nora begiratu behar dut ohartzeko?

Denek egiten dute paseotxo bera, atzeko aldetik aurrera, besarkada, esku-estutu, txalo besoak jasota, soinua ikus dadin, eta, gero, auzolotsa eman behar ligukeen momentu bat: hizlariak eta publikoa, aurrez aurre, elkarri txaloka, zoriontasunaren museoaren iragarki betean. Inor ez da igotzen behar lukeen mala ostiaz. Ez dirudi inor hil ala biziko ezer erabakitzera datorrenik.

Denek diote beraiek direla alderdi zentratua. Ez zentrokoa (nahiz eta ere bai, bakoitza bere joeratxoekin), zentratua. EHBilduren garaipena zentratuen taldeko egin izana da, momentuz. Besteak baziren lehendik, baina, orain, denak Korrika berean, denok zintzo, zaila dago bereizten. Denek zerbitzu publiko, denek Osakidetza, denek zaintza, denek, bereziki, epe motzeko hitzak, etorkizun asko errepikatu arren. Ez eskuin, ez ezker, Keynes digitalizatuak. Betiko errebeldea zentzatu, neurriak botatzen dizkigute, “euro batean!”, oso antzekoak.

Denak dira zoriontsuak, zentratuak, pragmatikoak, gaur egungoak, gertukoak, ezezagunak. Inor ez beldurtzeko jarriak. Beldurrek pista asko ematen dituzte ba. Eta, agian, azaldu dira batzuk. Azalduko dira beste batzuk. Eta ikusiko ditugu diferentziak. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Polizia

Etxebizitza huts batean sartu ziren gazteei babesa adieraztera gerturatu zirenak jipoitu zituen Ertzaintzak. Pertsona bat atxilotu zuten, lau ospitaleratu eta 25 lagun baino gehiago zauritu. GKS-k salatu egin du; Erkorekak Ertzaintzaren jokabidea babestu du.

Hizkuntza

Boterera heldu eta urtebetean, Valentiako erkidegoan eskuinak hizkuntza-eredua aldatu nahi du eskoletan. Sindikatuek eta hizkuntzaren aldeko erakundeek “atzerakoia eta diskriminatzailea” dela esan dute eta mobilizazioak iragarri dituzte.

Ekuador

Mexikok Quito duen enbaxadan indarrez sartu dira Ekuadorko Gobernuko segurtasun indarrak eta bertan babestuta zegoen Ekuadorko presidenteorde ohia, Jorge Glas, atxilotu dute. Vienako Hitzarmena urratu du Ekuadorrek.

Ez iskin egin zaintza sistemari



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Arabako Foru Aldundiaren erabaki batek etxez etxeko zerbitzurik gabe utzi ditu 150 pertsonatik gora, EH Bilduk salatu duenez. 700 euroren truke etxe barruko langile edo interna jarri behar izaten dira emakume etorkin asko, ez dutelako logela bat ordaintzeko modurik, Nafarroako Thycna elkarteak salatu duenez. Etxeko langileen lan-hitzarmena negoziatzeari uko eginda, langile horien baldintzak hobetu eta lan eskubideak ziurtatzea galarazten dute, LABek salatu duenez. Zaintzak albiste iturri izaten jarraitzen du. Ez da albistea izan, baina lerro bururen bat edo beste mereziko lukeen berria bada zaintzak bere bidea egin eta bere lekua hartu duela hauteskunde programa gehienetan.

Eusko Jaurlaritzatik politika publikoak zuzendu nahi dituenak, zaintza sistemari buruzko proposamen zehatzetan sartu behar izan du, eta zaintza greban egin ziren eskakizunen aurrean busti. Aldarrikapenak bereganatzeko edota alboratzeko izan, zaintzaren borroka erabaki politikoak behartu ditu, eta horrela, lortu nahi dugun zaintza sistemarako bidean urratsak egiteko, lehen ez zeuden aukerak sortu dira.

Borrokak instituzionalizatuz itotzea estrategia zahar bezain ezaguna da, eta arrisku hori badago oraingoan ere. Baina aldarrikapenak politika publiko bilakatzeko eta eskatzen ditugun aldaketak errealitate bihurtzeko, borroka horiek beren bidea egin behar dute instituzioetan. Eta ireki dugu ate hori. Zaintza lanak berrantolatuko dituen sistema berria eraikitzeko borrokari segida emateko baldintzak, hobeak dira gaur. Ez da txikia mobilizazioak ekarritakoa, ez dira gutxi mobilizatzen eta presionatzen jarraitzeko ditugun arrazoiak. ●

Eztabaidak eta oporrak

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

1.400 hegaldi atera dira Loitik Aste Santuko oporretan, eta doinu positiboan jakinarazi dute albistegietan. Auto elektrikoak kargatzeko ilaran geratu dira hainbat orduz hornidura puntuetan: kolapsoaren irudi biribila, baina ez izan marmartia, irtenbide zorionsua berriztagarriekin bizimodu bera jarraituko dugula antzeztea da. Oporrak izan daitezke ditugun gairik politikoena: bizidunok zer gara bada mundu honetan ematen dugun denboratxo hori ez bada? Eta zertan ematen dugu denbora lanetik aske garenean? Nola betetzen dugu denbora hori, zer bizitzeari eta zer egiteari ematen diogu balioa?

Enegarren oporraldiz ez dugu etxetik kanpo lo egin sozioak eta biok (ondorengoez egin dute joan-etorriak ondoko herriko lagun baten etxera). Haserre sumatu dut nire burua. Gozatzeko, plazer hartzeko ez dagoela kilometroak egin beharrik gogorazi diot. Baina haserre leherrarazi dut oporretako bigarren egunean, etxeko guztiak mahaian geunden otorduan. Kanpoko ostaturen batean azpikontratatu ezean, noraino dira oporrak etxearen karga oso modu desorekatuan beregain duen emakumearentzat? Are, gizonak oporrik ez badu egun horietan? Eta elkarrekin egoteari denbora eskaintzen diogunean ere, noraino gaude elkarrekin konexioan eta ez pantailei so elkarren ondoan? Elkarrekin zer egiteko ilusioa dugu, eta bakoitzak zer jarrera elikatuko du, esperientzia hori mikaztu beharrean gozarazteko ekimena denona izan dadin?

Bi eguneko eztabaida izan da, ez da bizipen goxoa ez erosoia izan. Baina pasatu orduko, asko poztu naiz berau bizi izanaz. Zein beharrezko diren sakoneko eztabaidak, mugiarazten gaituztenak. Ez ote ditugu gehiegi saihesten egunerokoan? Zertarako pizten ditugu pantailak, elkar despistatu eta gatazkak itzaltzeko ez bada? Eztabaidaz geroztik bizi izan ditugu barealdi opor egunak: landutako gatazka horiei esker kontzientzeari bizi izan dugu elkarren konpainia, mahai-jokoak eta estalian zeuden eztabaida gehiagok ordezkatu dituzte pantailak, sendoago dugu etxea (eta ez hain garbi, ezinbesteko lanak birbanatzea eta hortik aurrera exigentziak jaitea adostu baitugu), elkarri etiketarik jarri gabe edozertaz eztabaidatu dezakegun lagunekin elkartu gara, eta zer arraio, elkarri arpa jotzeko materiala pilatu dugu. Gehien poztu nauena, semearen lagun batek gurean bost egun eman dituela izan da. Bi lagun oso desberdin egun osoz elkarri itsatsita eta haien munduan sartuta: horiek bai oporrak.

Mundu honetan ematen dugun denbora, bizitza, zertan eta nola eman nahi dugun pentsatzen jarraitzeko aukera dugu apirilaren 13an Azpeitian, "Lurraren defentsan" Euskal Herria Biziriketik antolatutako egunean. Hori ere badelako energiaren eztabaida. Gure bizitzetaz guri egitea dagokigun eztabaida, enpresek eta hauekin tratuan dabiltzan politikariek mezu sinpleekin eta soluzio azkar eta miragarrien ilusioa haizatuz saihesten duten eztabaida. Zein bizimoduk asebetetzen gaituen, zein diren gure benetako beharrak, zein desireri jarraitu nahi diegun. Kapitalismoak kontsumismoz bete dizkigun horiek, kolapsora garamatzatenak. Kantariak zioen eran, gure bizitzetaz *lilia hartu eta hostoz hosto erantzi...* Lurraren aldeko borroka, bizitza esanguratsuen aldeko borroka da. ●



23.000

biktimaren datuak ditu "Oroibidea" plataformak. Nafarroako Gobernuak Espainiako Gerra Zibilaren eta frankismoaren artxibo digitalaren plataforma gaurkotu du eta bildutako errepresaliatuen testigantzak laukoiztu dituzte.

32

aldiz gutxienez erabili du taser pistola Ertzaintzak, 2018-2022 urteen artean. 2017an, Eusko Jaurlaritzak 50.687 euro bideratu zituen taser pistolak erostera.

431.000

milioi dolarrera iritsi zen 2018an munduko "segurtasun nazionalaren" merkatua. 2024an 606.000 milioi dolarrera iristea espero da.

"Baionan ere queer mugimendua bada"

MAIALEN BERRA

Bitxi Bitxi queer kolektiboa sortu dute hogeit bat kidek berriki Baionan.

EUSKAL IRRATIAK (2024-03-28)



"POLIZIAREN ESKU-HARTZE ARRAZISTA, NEURRIGABEA ETA ERABAT BORTITZA GAITZETSI ETA IKERKETA SAKONA ESKATZEN DUGU"

77 elkartek adierazpena sinatu dute, martxoaren 21eko gertakariak salatzen. Hainbat herritarri suzko arma batekin tiro egin ostean bi pertsona zauritu zituzten udaltzainek, Barakaldon.

2024-04-03

"Gure irratietan euskararen presentzia elkarlanari esker areagotu eta bultzatzeko helburuak batzen gaitu"

ARROSA SAREA

Arrosa Irrati Sareak Nafarroan ospatuko du lehen aldiz komunikazio librearen aldeko eguna. Esan Erran irrati txikian (argazkian) dute hitzordua, apirilaren 13an, Basaburuan.

ARGIA.EUS (2024-04-02)



Desinformazioaren jokia



DIANA FRANCO

Askotan pentsatzen dut informazio larregi jasotzen dugula, eta, zeinen ondo bizi den ezjakintasunean. Hainbeste informazioekin, pertsona xumeok botere ezberdinen helburuak eta horiei loturiko jokabideak ulertzeko ditugun aukerak inoiz ez bezalakoak direla dirudi. Baina ez da musu-truk, informazio guzti horrek lasai bizi nahi ditugun bizitzetan eragina duelako eta jasotzen dugun informazioari modu kritikoagoan begiratu behar diogulako. Zentzu horretan, Tactical Tech irabazi asmorik gabeko erakundeak, eremu digitalean egiten dugun erabileran laguntzeko hezkuntza material interesgarri bat argitaratu du, batez ere kazetarietara zuzenduta, eremu digitalean funtzionatzen duten desinformazio sareek gure munduari forma emateko duten ahalmena ulertzeko. Materialaren izenburua: “Zelan hauteman lineal dauden desinformazio sareak”.

Gidaren autoreak, Nicola Brunok, honako lau pauso gomendatzen ditu desinformazioaren haritik tiratzeko: Lehena: webguneak desinformazioa zabaltzen al duen aztertu (desinformatzen duten webguneetan egon daitezkeen datuak kontrastatzeko baliabideak partekatzen ditu). Bigarrena: webgunearen atzean nor dagoen begiratu. Hirugarrena: dirua jarraitu (kasu honetan, webguneak erabiltzen dituen publizitate finantzaketa moduak aztertzea proposatzen du, adibidez, publizitate ID-ekin lotzen diren webguneak begiratu). Laugarrena eta azkena, webgune horretan dagoen edukia sare sozialetan zelan zabaltzen den ikusi, sare sozialak baitira eremu digitalean pertsona nitxo ezberdinetara heltzeko bide eraginkorra, eta desinformazioa hedatzeko aukera ugari ematen dute.

Benetan lan neketsua iruditzen zait, kazetarietara eta batzuetan herritarrok egin behar dugun lana maremagnum honetan desinformazioaren jokoan ez erortzeko. ●

Aukeratu gabeko bakardadea prebenitzeko proiektua

OLAIA L. GARAIALDE

Sakanako pertsona zaharrei babesa emateko proiektu pilotua da Teknoadineko Landab. Bizilagunen parte-hartzea “funtsezkoa” dela nabarmendu du Nafarroako Gobernuak.

Aukeratu gabeko bakardadea da pertsona batek behar adina interakzio sozial ez dituenean, horrela nahiko lukeenean, edo interakzio horiek ez direnean behar bezain kalitatezkoak edo bere behar eta itxaropen sozialen araberakoak; sentimendu subjektiboa da. Adin guztietako jendeari eragiten dion arren, zenbait kolektibo zaurgarriagoak dira; horien artea, zaharrak. Horregatik, komunitate zaintzaile bat bulztatu nahi du Nafarroako Gobernuak Sakanan. Helburua da landa eremuan jarduten duten gizarte zerbitzuak indartzea, “kalitatezko” arreta eman ahal izateko bailarako pertsona zaharrei.

2023ko apirilean jarri zuten martxan Teknoadineko Landab proiektu pilotua, eta zaintza komunitarioan oinarritzen da. Lehenengo fasean diagnostikoan eta sentsibilizazioan jarri dute arreta. Horretarako, bakarrik bizi diren inguruko pertsona zaharren nahiak eta beharrak bildu dituzte.

Horrez gain, proiektuan parte hartzen duten hiru mankomunitateek — Altsasuko, Olaztikoko eta Ziordikoko mankomunitatea, Etxarri-Aranatzekoa eta Irurtzunekoa — hitzarmen bat sinatu dute horien arteko harremana arautzeko. Hori dela eta, lantalde motor bat sortu dute mankomunitate bakoitzean: helburua da ekintza komunitarioen jarraipena egitea eta baliozkotzea. Man-

komunitateko, osasun arloko eta gizarte zerbitzuetako langileek osatzen dute taldea. Erakundeetako langileen inplikazioaz aparte, herritarrengana ere jo dute, eta bailaran erreferenteak diren pertsonak identifikatu dituzte formazioa eskaintzeko eta elkarrekin kolaboratzeko.

Nafarroako Gobernuaren arabera, lehenetsuna da Informazio Sistema Integrala (SII) antolatzea eta ezartzea mankomunitate bakoitzeko Gizarte Zerbitzuetan. Sistema horren bidez mankomunitateek zahartzaroren eta bakardade edo bazterkeria egoeran dauden pertsonen inguruko datuak lortu, eta pertsonak horiek identifikatu ditzakete. Datu horien bidez, zaurgarri edo bakarrik dauden pertsona zaharrak identifikatu, eta haienagana hurbildu nahi dute euren egoera lehen pertsonan ezagutzeko eta aztertzeko zer-nolako babes soziala duten.

Horri esker, programan parte hartzen duten pertsonen noren laguntza jaso nahi duten erabakitzeko aukera izanen dute. Ez badute oinarritzko lanetan laguntzeko bizilagunak topatzen, lantalde motorra arduratuko da, eta osasun arloko, zerbitzu eta salto-kietako langileak eta bizilagunak lotuko ditu. *Auzozainak* “nahitaezkoak” direla nabarmendu dute: bakarrik bizi diren bizilagun zaharrek kontaktuan dauden boluntarioak, babesa helarazi eta pertsona horien egunero bizitzan gertatzen diren aldaketetara erne egoteko. ●



ASTE POLITIKOAREN KRONIKA: EAJ-REN MITINA

Harroputzaren bide motza

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Azkoitian egin du EAJk kanpainaren estreinako asteburuko lehen mitin politiko jendetsua. Ez edonon: Xabier Arzallus jaio zen etxearen parean, Oteizaren eskultura dagoen plazan. Azken hamar urteetan EAJk agindu du herrian, baina jeltzale sutsuenek ez omen dute ahantzi EH Bilduk gobernaturako aldia. Imanol Pradalesek ere, Santurtzitik izango bazen ere, ondo gogoan du antza: “Zuek hemen badakizue zer den gauzak norabiderik gabe egitea”.

Norabide edo plangintza falta-edo, alboko kafetegian. Bazirudien langileek ez zekitela aurretik halako zapatu goiza edukiko zutenik. Astindu galanta jaso dute mitinaren aurreko ordu erdian, saldoka atera baitzkie kafeak, izotzez beteriko edalontziekin, indarrak hartzera joan diren jeltzale pretoriar klasikoei. Eta ilara egiterakoan, gutxienez bi alditan entzun da *Mundu berri baten mapa* abestia, Donostiako Piratena... Zerbait esan nahiko zuten ala *berri* aipatu nahi horretan –*Indar berria* leloa darabil EAJk– kolatu zaie abestia, eta paralelismo bitxia suertatu da. Bien bitartean,

Diario Vasco-rik ez zen geratzen barran; *Berria* bat bazegoen hortik, terrazan, baina etxetik ekarria zirudien. Hego-haize basatiko goizean, terraza leporaino, muntaia puska egiteko dozenaka lagun aritu dira jo eta su. Harri azpitik ere Athletic zaleak ateratzen dira egunotan eta hor ere baziren baten batzuk.

Ekitaldia hasterako ostarreak zabaldu dira, eta ehun bat lagunek bete-betean eta parez pare jan dute eguzkia ekitaldi osoan –gazteleraz, *cara al sol*, bai-. Argiaren bila publikoa zutitzen hasi da, Imanol Pradales, Bakartxo Tejeria eta Joseba Egibar plazara sartzen hasi direnean. Txalotzearekin batera plastikozko ikurrinak mugiarazi ditu jendeak musika epikoaren gainetik.

Atrilera joaten lehena Tejeria izan da eta umeen futbol-partidu bat bailitzan, hain jakina den helburua zehaztu du lehen hitzean. Baloia hor sartu behar dugu. Hau da, bozkatu EAJ. Ondorengo minutuen lerroartean uler daiteke finalerako kalkuluetan zerk huts egiten dien: taktika ez da txarra berez, baina jolasteko gai den jendea falta da. Jokalari

asko ez dira kamisetaz aldatu, ez dira EH Bildura joan, ezta PPra ere, baina deitu iezaiozu etorri ala ez dudetan dagoen zure lagunari, etxean geratzekotan den horri, eta konbentzitu. Literalki hori da asmoa; Ortuzarrek esan zuen egun batzuk lehenago, eta Pradalesek berretsi du Azkoitian: jeltzale bakoitzak har dezala konpromisoa zalantzati bat konbentzitzeko.

Egibar ere batu da jokora, eta hain ohituta gauzkan espektakulua eskaini du Azkoitian. Paperik gabe, bere estiloan, egurra eman dio EH Bilduri. PSE-EEri aipamenik ere ez, existituko ez balitz bezala. Ezker abertzalearen “katastrofismoaren” eta jeltzaleen “egiaren eta demokraziaren” artean erabaki behar dela esan du, bi modelo horietako bat. Eta bertan izandako kazetarien gogoan geratu den esaldia utzi du: “Popatik dabil ezker abertzalea, baina harroputzak bide motza izaten du. Gu harroak gara; iraganeko akatsak onartzen ditugu eta aurrera egin nahi dugu”.

Dagoeneko alkandora zuriak agortzen ariko zaizkion Pradalesek, berriz, rol zehatza du jokoan: pazientzia eskatu eta buruak hotz ipini. Krispaziorik eragin gabe, eta hitz aspertu askorekin, konfiantza transmititzea du helburu. Galtza bakeroen barrutik sartuta eraman du alkandora zuria, gardentasuna transmititzeko, eta orain, horien labadora berezitu bat jartzen duenean, plantxatu berri dituen Athletic-ekoak jantziko ditu datozen egunetan. Bizkaitar on baten gisan, aurtengoa ez ea beste zein urtetako elastikoa jantzen duen –bat baino gehiago egongo dira adi Petronorren babesletzadunarekin argazkia egiteko-. Egun onak datoz EAJrentzat; Gabarraren ajeak pasatu arte ea zein promesa elektoralek lortzen duen Teleberrin Athleticen gainetik zerbait kolatzea. ●



GNL: LOUISIANAKO ZINGIRETAN JOKOAN DIRA MUNDUKO KLIMA ETA OSASUNA

Energia krisiak eta Ukrainako gerrak hauspotuta, Gas Natural Likidotua (GNL) bihurtu da munduko lehengai estrategiko eta preziatuenetakoa. AEBetako hegoaldean gasa modu horretan biltegitatu eta esportatzeko planta erraldoiak egin asmo ditu industriak, baina Joe Bidenen gobernuak moratoria ezarri du, bide hori "hobeto aztertzeko". Ekologisten esanetan, "mega-bonba klimatikoak" diren proiektuok munduko ingurumenari eta herritarren osasunari itzulezinezko kalteak ekarriko dizkiote.

 URKO APAOLAZA AVILA

Plaquemeseko parrokia orbain bat bezala luzatzen da New Orleans hegoaldean Mexikoko Golkon barrena, zer den itsaso zer den lur ezin bereizirik, edo "itsasoak eman digun lurra geuregeurea ez dela konbentzitututa", Oihane Amantegik *Cayo Hueso* nobelan Floridako artxipelago ez hain urruneko sentsazioak deskribatzen dituen gisan. Baina hau ez da Florida, hau Louisiana da, esklaboen oinordekoen territoria, jazzaren sehaska, arrantzaleen bizitokia, *Katrina*-ren hiltokia... eta AEBetan pobrezia eta desberdintasun tasa handienak dituen estatua.

Hemen bizi da Katie Mazarac, Buras herrian, hemezortzi hilabeteko bere haurra-ekin. Burasen badakite zer den itsasoaren kontra bizitzea, izkirak harrapatzen dituzte erruz Missisippiren deltako mendebalde honetan. Aspaldion, etxe gehienetan ur gatzatua baizik ez da irteten iturria irekitzerakoan. Kontra dator itsasoa Burasen azken urteetan, klima larrialdiak eta ekaitz tropikalek eragina. Mazaracek alabatxoa ur botilaratuarekin garbitzen du, ez da fio gatzaz gain partikula kutsagarriak ekar ditzakeen itsasoko ur zikinduaz.

Pasa den urteko abuztutik problema handitan dabilta plaqueminestarrak: txorrotatik presiorik apenas dago. Lehortea da errudun, baina ez bakarrik lehortea. Izan ere, izkira-arrantza ez da industria bakarra, ezta boteretsuena ere. Hemen lobby petrokimikoak agintzen du, eta horrekin batera, bogan den Gas Natural Likidotuaren (GNL) negozioak.

Mazaracen berri *The Guardian*-en jaso dugu, Delaney Nolanek idatzitako "A fossil fuel plant is leaving Louisiana families with 'barely enough water for your toothbrush'" (Erregai fosilen planta bat Louisianako familiak uzten ari da 'hortzetako eskuilarentzako urik gabe') artikuluan. Egunkari britainiarrak erregistro publikoetan ikusi duenez, Venture Global enpresak inguruetakoa ur edan-garriaren laurdena erabili zuen 2023ko maiatza eta iraila artean... zertarako? GNL planta erraldoi bat eraikitzeke zementuarentzako.

Venture Global ez da edonor. Qatar bezalako herrialdeekin lehian dabil GNL esportatzaile nagusi izateko bidean, eta Plaquemeseko zingiretan 255 hektarea okupatu ditu -Baliarraingo udalerrira osoa kabitzen den eremua-, munduko terminal handienetakoa dena egiteko, horretarako "ehunka baimen urraketa" pilaturik baditu ere, dio *The Guardian*-eko kazetariak. 21.000 milioi euroko proiektu hori munduko banku handienek finantzatu dute, eta nola ez, baita BBVAK ere. Gainera, gasez hornituko duen bezero nagusietako bat Repsol multinazional espainiarra izango da, Muskitzeko Petronor findegia jabea.

Ukrainako gerrak European eragindako gas errusiarraren eskasiak akuilatuta, Louisianan ez ezik Texasen eta AEBetako beste hainbat tokitan GNL proiektuak barra-barra ugaritu dira, zizak Urbasako zabaletan bezala. Terminal horietan frac-

kingaren bidez milaka putzutatik erauzitako gasa hoztu, likidotu eta biltegitatzen dute -hartara 600 aldiz bolumen txikiagoa izan dezan- eta metano-ontzietan esportatzen dute Atlantikoan beste aldera, Zierbenan dagoen Bahia Bizkaia Gaseko instalazioetara, esaterako. 2022an Euro-para AEBetatik inportaturiko gasa %140 hazi zen.

IKATZEZKO 440 ZENTRALEK ADINA

Urtarril honen amaieran Joe Bidenen administrazioak iragarri du GNLa esportatzeko baimenak bertan behera utziko dituela. Energia segurtasuna, kutsadura-ri buruzko kezka, azterketa ekonomiko zorrotzagoak egin beharra... Argudioak argudio, ekologistek ongi etorria egin diote moratoriari, Amerikako Petrolioaren Institutu ahaltsua *crochet*-arekin nokeatua gelditu den bitartean. Baina Etxe Zuriaren erabakiak ez die eragiten jadanik onarturik dauden proiektuei... Eta ez dira gutxi.

"AEBetan GNLa ekoizteko 30 planta berri eraiki edo proposatu dira 2016tik, Oil and Gas Watch erakundeak dioenez. Louisiana eta [Mexikoko] Golkoko Texasen kostaldean jadanik bost plantek funtzionatzen dute, eta GNL terminal berri horien bi heren hartuko dituzte orain. Horrek esan nahi du gutxienez 22 GNL planta eraikiko dituztela". Hala dio Texaseko den eta New Orleansen bizi den Xander Peters idazle eta kazetariak, ingurumen gaiak jorratzen dituen En-

vironmental Health News atarian. Irakurlea ikaratuko duen beste datu bat ere ematen du: 22 planta horiek eraikiz gero, ikatzezko 440 zentralek bezainbeste kutsatuko lukete atmosfera CO₂arekin. Ekologistek “mega-bomba klimatiko” deitzen diete halakoei.

Ingurumen kutsadura globala eragiteaz gain, inguruko herritarren bizimoduan eta osasunean ere ari da kalteak sortzen gasaren industria, konbinazio fatidiko bat juntatzen baita kostaldeko zingira eta laku emankor horietan. Erreportaje luze zabalean, Petersek kontatzen du nola ari diren GNLa biltegitratzeko tanke erraldoiak Mississippik oparituriko ur geza sikatzen eta lurra okupatzen. Gainera, Lousianako kostaldean dagoen Cameron parrokiako herri arrantzaleak husten ari dira pixkanaka, ekaitz gero eta bortitzagoen eta itsasoko mareen gorakadaren ondorioz. 2020an *Laura* urakana zeharo txikitu zuen orain Venture Globalek GNL terminal bat eraiki nahi duen ingurunea. Cameronen duela urte batzuk zituen 10.000 biztanle, erdia baino ez dira orain.

Baina geratzen direnek borrokarako bideari ekin diote, eta aurpegi ezagunetako bat John Beard dugu. Urte askoan ExxonMobil lan egindakoa, Texas eta Louisiana arteko mugan dagoen Port Arthur herriko ekintza sarearen sortzailea da eta Sempra enpresak handik gertu Calcasieu lakuan egin nahi duen GNL azpiegituraren aurka dabil buru-belarri. Greenpeacek duela urtebete elkarrizketatu zuen, gasaren auziaz egindako *Who Profits From War: How Gas Corporations Capitalise on War in Ukraine* (Zein aberastan da gerratik? Nola gas korporazioek kapitalizatzen duten Ukrainako gerra) txostenerako: “Port Arthurrek Beiruten, Iraken edo bonbardatu dituzten beste leku batzuen antza du: etxe hutsak, lur



PLAQUEMINES Mississippiko deltan Venture global enpresa egiten ari den GNL plantaren tanke bateko sabaia jasotzeko momentua. 200.000 metro kubo gas biltegitratu ditzake berak bakarrik.

sail mortuak, hondatuta dauden azpiegiturak eta kaleak...”, dio ekintzaileak.

Nahiz eta, lehen petrolioarekin eta orain gasarekin, herritarrei hitz eman aberastasuna ekarriko zutela eskualdera, Port Arthurreko biztanleen %27 eta %30 artean pobrezia mailaren mugan bizi da: “Honek ez digu batere onik egin. Jadanik airean dagoen kutsadura ari gara nozitzen eta orain GNLa ekarriko duena jasan beharko dugu”. 120 urtez konpainia petrokimikoek pilatutako sufredioxidoaz, bentzenoaz, formaldehidoaz... mintzo da Beard, eta nola sartzen diren partikula eta molekula horiek guztiak gorputzean, nola gorritzen dituzten begiak, zakartzen ezarriak, minbizia sortzeraino.

Ez dela petrolio edo ikatza bezain txarra, CO₂ isuriak aurreztuko ditugula, gutxiago kutsatzen duela... hori dio gasaren lobbyak etengabe. Baina Beardek


badaki karbuero konposatu bat hausten deino zenbat karbono, toxiko eta toxina askatzen diren. Badaki, 38 urtez aritu delako horiekin lanean: “Erabilera hori ezabatu behar dugu eta modurik onena nire arreba-anai indigenek esaten dutena egitea da: ‘Utzi lur azpian’. Arrazoiren batengatik dago lurperatuta”.


Eta azken ohartarazpen bat ere badakarkigu lousianarrak, hango miseriaz gure lantegiak piztu eta etxeak berotzen ditugunontzat: “Europa eroso sentitzea gure gasa erabilita guk frackingaren kalteak sufritzen ditugun bitartean, jarrera oso miopea iruditzen zait (...). Denok bizi gara planeta honetan, arrokaz, urez eta airez osaturiko lur zati honetan. Hemen gertatzen dena, zuri gertatuko zaizu”. Klima aldaketa, itsasoaren gorakada eta muturreko meteorologia ekarriko dizkigu ordainetan erosotasun horrek, dio Beardek: “Ezer ez da debalde”. ●



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
zinkunegioptika.com





AHLEM

Irati Unamunzaga eta Jon Arriaga

DOLU PERINATALA



MINA EZ DA TAPATU BEHAR; BIZI EGIN BEHAR DA, AURRERA EGITEKO



laz, irailaren 9an, jaio eta egun gutxira zendu zen Irati Unamunzagaren eta Jon Arriagaren umea, Nare. Haurdunalditik beretik, bidearen gazi-gozaok konpartitu dituzte ingurukoekin, naturaltasunez, eta dolu perinatalaren prozesuarekin beste pauso bat egitea erabaki dute: elkarrizketa batean publikoki kontatzea. Gai tabu hori mahai gainean jartzeko, eta inori antzeko zerbait gertatzen zaionean, jakin dezan ez dela bakarra.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Duela hilabete batzuk nirekin harremanetan jarri zineten, bizi izan duzuen kontaktatu nahi zenutela eta. Nolatan hartu zenuten erabaki hori?

Jon Arriaga: Gu heldu ginen puntu honetara nahiko ezustean, eta dena pasatu zen oso azkar. Gero geratzen zara ez dakizula haizeak nondik ematen dizun ere. Hilabete eta piko pasatuta pentsatu genuen agian ondo egongo zela kontatzea, jendea antzeko egoeran badago, behintzat ikusteko ez direla bakarrak.

Irati Unamunzaga: Ikusteko errealitatea dela eta ez dela bizitzatik at dagoen gauza bat; bizitzaren parte da heriotza ere. Egia da lehendik ere inguruan konta-

tu izan genuela tratamendu batean genbiltzala; ondoren haurdunaldi ektopikoa eduki nuenean hasi ginen kontzientzia gehiago ipintzen holako gauzetan, berbalizatu egin behar genituela, naturaltasunez. Eta hor ikusi genuen jende gehiagori pasatzen zaiola, nahiz eta ez kontatu.

J.A.: Haurdunaldiaren kontakizuna, jaio aurretik ere, da oso...

I.U.: Arrosa. Badirudi dena dela ideala, eta ez. Izan daiteke bizipen polit bat, baina bidean ere gauzak gertatzen dira.

Haurdunaldiaren azken fasean ingresatuta egon zinen Gurutzetako ospitalean preeklanpsiarekin. Nola gogoratzen duzu?

I.U.: Urgentzietara sartu ginen momentuan antsietate handiarekin nengoen, ze ikusten nuen tentsioa oso altu nekala. Baina pentsatzen nuen pastilla bat emango zidatela jaisteko, eta etxera joango nintzela. Eta heldu eta 24 ordu-ra esan zidaten han geratu behar nuela alaba jaio arte... sei hileko nengoen gutxi gorabehera.

J.A.: Hasieran ez genuen asimilatzen ezer. Heldu eta pare bat egunetara logela batera pasatu gintuzten, eta hor pixkanaka hasi ginen erreakzionatzen.

Zenbat denbora egon zineten denera?

I.U.: 24 egun.



Irati Unamunzaga Aranda



DURANGO, 1990

Hezkuntzari lotutako ikasketak egin zituen eta irakaslea da lanbidez. Umezale amorratua, betidanik izan du argi amatasunaren esperientzia bizi nahi zuela eta nahi hori lortzeko borrokan ibili da azken urteetan. Momentu honetan, galeraren zauriarekin bizitzen ikasten eta doluan dagoen ama.

Jon Arriaga Olabarria



MARKINA-XEMEIN, 1986

Komunikazioaren eta ikus-entzunezkoen mundukoa ikasketaz, kamera atzealdeko lanetatik ikerketara egin zuen jauzi eta, azken urteetan, kultur kudeaketan ari da. Horrez gain, euskaran eta ZZE Zuk zeuk egin filosofian oinarritzen diren zenbait kultur proiekturen eragilea ere bada. Gaurgaurkoz, bizitzako lehentasunak birkokatzen eta doluan dagoen aita.

Gaitz arriskutsua zen bai haurdunarentzat bai haurarentzat.

J.A.: Esan ziguten une jakin batean argi gorri bat piztuko zela Iratirengan edo Narerengan, eta hor erabakiko zuten ateratzea. Eurek esaten ziguten egun bat gehiago ere asko zela holako ume txikientzat, eta orduan pixkanaka errutina bat sortu genuen.

I.U.: Altxatu, armosatu, paseatu, familia eta lagunak bisitatu...

J.A.: Hor egon ginenean, ea noiz piztuko zen argi gorri hori.

Irailaren 4an izan zen, astelehenez.

J.A.: Apurtxo bat ezustean hartu gintuen. 12:00ak aldean esan ziguten Iratiri asko jaitsi zitzaizkiola defentsak eta ezin zela gehiago itxaron.

I.U.: Ordu laurdenean gure etxea izandako gela jaso eta erditze-gelara joan ginenean. Ipini zidaten medikazio bat, buruan afekzioerik ez edukitzeko ez nik ez Narek, eta ordu batzuk egon behar nintzen medikazio horregaz. Ondoren kirofanora eramanez ninduten, eta zesarearekin ostean, bost eta erdietan jaio zen Nare.

Hurrengo egunak nolakoak izan ziren?

I.U.: Bizkortze-unitatera eroan nindutenean lasai nengoan. Nare jaio zenean negar egin zuen, bere kabuz arnasa hartu zuen; esan zidaten dena ondo zegoela, ni ere ondo, eta azken asteetan bizitako ekaitzaren osteko "barealdian" nengoan.

J.A.: Eta ni maratoiarekin hasi nintzen: Irati bizkortzean, Nare *neonatos*-en eremuan eta ni ostatu batean. Leku batetik bestera pasa nituen egun horiek. Gero eguaztenean plantara jaitsi zintuzten logela batera, zurekin joan nintzen berriro, eta orduan joan zinen lehenengo bider Nare ikusten.

I.U.: Ordura arte ez zidaten laga ohetik altxatzen ere.

Ostiralean gauzak okertzen hasi ziren.

J.A.: TAC bat egin zioten Nareri eta ikusi zuten isuri bat buruan, eta antibiotikoari ere ez zebilen ondo erantzuten...

I.U.: Uste zuten infekzio bat zeukala, meningitisa izan zitekeela... Nik hor pentsatu nuen: "Listo, igual ez da irten-go", baina benetan ez nuen sinesten. Baina hor egunean Joni esan nion: "Panorama okertzen dabil nahikotxo".

J.A.: Pentsatzen genuen ondorioak oso

larriak izango zirela eta oso bizi-kalitate txarra edukiko zuela umeak.

I.U.: Eta guk nahi genuen bakarra zen, hasieratik esan genuen, umeak bizi-kalitate ona edukitzea, eta autonomia. Hori argi eta garbi geneukan.

J.A.: Zapatuan egin zizkioten beste TAC batzuk eta esan ziguten, emaitza guztiak eduki ez arren, aurreratu ahal zigitela Narek ez zuela edukiko bizi-kalitate onik, seguru. Eta hor erabaki genuen: ez dugu nahi luzatu.

Argazkilari bati deitu zenioten.

I.U.: Beldurra eduki genituen haurdunaldiarekin lotuta, asko kostatakoa izan zelako eta gainera gure inguruan bertan behera laga behar izan direlako haurdunaldi batzuk bosgarren hilean, orduan ez geneukan ia argazkirik, oroitzapenik, eta esan genuen hau da momentua, zeozer eduki behar dugu berea.

J.A.: Pentsatzen genuen, a zer panorama, orain deitu bati etortzeko hona, ea animatzen den argazki batzuk ateratzen Nare hiltzear den momentuan... Azkenean lagun baten bidez topatu genuen Leihor Elorriaga.

I.U.: Leihor etorri zen momentuan, eman zigun besarkadagaz bakarrik zer transmititu zigun... Bera zen egon behar zena. Naturaltasunez tratatu zuen heriotzaren gaia eta sentiarazi zigun gure seguru batean geundela, bera egonda ere bai.

J.A.: Ez dakit nahita ere topatuko genuen horrelako norbait. Ospitalekoek ere gure goxo bat jarri ziguten, zaindu gintuzten une horretan.

I.U.: Bizitzako unerik gogorrena izanda ere, ni lasai geratu nintzen momentuan.

J.A.: Hutsik.

I.U.: Jaitsi ginenean, sentsazioa izan zen: listo, egin dugu egin ahal izan dugun dena. Egon gara hor.

J.A.: Gu egon gara han, bizi izan dugu hori, eta kontaktatu dugu naturaltasunez, ze guk natural bizi izan dugu, baina nik ulertzen dut kanpotik entzuten duela beste batek eta pentsa dezakeela, "hauek zelako zartada daukaten".

I.U.: Zelan kontaktatu daiteke holako gauza gogor bat?

J.A.: Momentu oso basatia da, baina aldi berean oso oroitzapen onak dauzkagu.

I.U.: Ze aldi berean da alaba lehenengo gainean hartu nuen momentua. Zuk [Jonek] bizirik hartu zenuen eta zure gainean hil zen, baina nire kasuan



adibidez, eta lagunegaz noiz edo noiz komentatzen, nire alaba hilda bakarrik eduki dut gainean, eta bai oso gogorra da, baina niretzat hori momentua izan zen... gozoa. Oroitzapen ona daukat. Gogorra da, baina nik ez dut eduki aukerarik beste era batean heltzeko alabari.

J.A.: Handik jaitsi ginenean, lasai jaitsi ginen, hutsik moduan, eta lo egin genuen.

I.U.: Pastilla ondoan, baino lo. Gero asteak egon naiz pastillagaz ondoan, baina lo. Niri horrek ematen zidan segurtasuna. Horrek eta nire etxeokoe egunero emandako babesak.

Irailaren 23an agurra egin zenioten Nareri Ogellako hondartzan.

J.A.: Jende pila bat etorri zen, eta aitortza hori eduki dugu: jendeak badaki guk ume bat eduki dugula, guraso izan garela eta Nare deitzen dela. Baina aldi berean ez dute ezagutu eta ezagutu ez duzun pertsona bat faltan botatzea ez da hain erraza, zure egunerokotasunean ez delako egon pertsona hori. Momentuan bai jaso genuen inguruko babes, baina dolu perinatalaren kontua handi geratzen zitzaigun denoi, guri ere bai.

I.U.: Zelan lagundu hor momentuetan, zelan egon, zelan eman presentzia... Ez dakigu, ez gaituzte hezi horretarako, edo nik behintzat ez dut eduki heziketa bat heriotzaren inguruan, edozein doluren inguruan, eta are gutxiago halakoetan. Orduan, zelan jokatu horren aurrean? Uste dut hor bai falta zaizkigula estrategiak. Hala eta guztiz, asko daukagu eskeretzeko ondoan egon direnei.

J.A.: Azkenean, heriotza ez da batzuei noizbait agian gertatuko zaien zerbaite. Jaiotzen gara eta denoi gertatuko zaigu.

I.U.: Eta bizitzarekin lotuta doa, esan nahi dut, ez dela bizitza alde batetik, eta heriotza beste gauza bat hortik galduta dagoena, horrela da.

Halakoetan, ingurukoak zer egin ez dakigula geratzen gara batzuetan: zuei zer egin zaizue lagungarria?

I.U.: Eskertu izan dut jendeak esatea: "Zer behar duzu?". Edo, "Irati, hau egitera noa, bazatoz?". Tiratzea norbaitek nigandik nik ezin nuenean.

J.A.: Badakizu laguntza eskatzen baduzu jendeak lagunduko dizula, baina batzuetan ez daukazu indarririk edo gogorik ere eskatzeko. Orduan batzuetan behar duzu beste aldetik akuilu-lan hori: ez derrihortzea, baina proposatzea. Horregatik tribuarena oso inportantea da; azkenean pozak konpartitzen ditugu, eta gauza txar-



rrak ere konpartituta hobeto eramaten dira. Ez dakigu zertaz berba egin halako egoeretan, bueno ba igual egongo gara horrela, eta listo.

Osasun psikologikoa nola zaindu duzue?

I.U.: Panorama okertu zenean argi eta garbi geneukan terapiara joango ginela. Badaezpada, ez geratzeko hor korapiloric. Etxera itzuli eta pare bat astera, asentatuago geundenean, bila hasi ginen. Hizkuntzari garrantzia eman genion, euskaraz izateari, batez ere bion hizkuntza delako, eta gero nahi genuen dolu perinatala lehen pertsonan bizitako norbait izatea.

J.A.: Batzuetan grazia egiten dit ze esaten dute: zer nahi duzu mediku ona ala euskalduna? Ba nahi dut terapeuta ona eta euskalduna, biak, ze behar dut euskaraz izatea trasbase hori ondo egoteko, edo *feeling* hori edo gertutasun hori topatzeko.

Horren harira, guk ospitalean arreta ona eduki genuen eta super ondo zain-

duta egon ginen, baina egia da ez genuela eduki laguntza psikologikorik momentu batean ere ez. Kanpoan, terapiara joaten gara gure kabuz, guk ordainduta, eta ordaintzen dugu eta ondo, baina denek ez daukate aukera hori, eta premia berdin-berdin edukiko dute.

I.U.: Dena pasatu ostean joan ginenean biltzen Nareren pediatragaz, txostena-eta jasotzeko, eurek esaten ziguten ea zeozer esateko geneukan, hobetzeko-edo, eta esan genuen gauzetako bat izan zen hori: guk psikologorik ez genuela eduki momentu batean ere ez prozesu guztian, eta uste dut baten bat pasa beharko zela, bai hasieran, notizia eman zigutenean, baita gero ere Nareren heriotzagaz lotuta baten bat etorri behar zela gu ikusten. Hor ikusten da Osakidetzan dagoen hutsunea osasun mentalagaz. Medikuen partetik jaso genuen enpatia, adibidez etxera joateko baimena eman zidaten nahiz eta berez pare bat egun han geratzea komeni, eta hori ondo, baina falta zen beste profesional konkretu bat egoera bideratzeko.

J.A.: Esaten da Osakidetza ondo doala, baina denok dakigu medio pila bat falta direla. Eta, adibidez, guk bizi izan dugun kasu konkretu honetan, hain ume txikiak daudenean *neonatos*-en, kanguru-metodoa erabiltzen dute, eta horrek esan nahi du gurasoak egon behar direla ahalik eta denbora gehien bertan, haurrarekin; sarbidea libre daukazu 24 ordu zazpi egunetan. Ederto, baina ez badaukazu leku bat egoteko, eta egoteko ez diot tuperra lagatzeko aukera hozkailu batean, diot egon behar duzula ostatu batean, pagatu 4.000 euro... Orduan, metodo hori oso interesgarria bada, ez nik esanda, ospitaleak esanda oso interesgarria dela, ba igual eman behar zaio buelta bat horren kudeaketari. Adar guztietan egongo dira halako gabeziak, baina guk zehazki horiek eduki ditugu.

Beste zer bait esan nahi zenukete?

J.A.: Ez dakit oso ondo nola azaldu ideia hau, baina batzuetan nik esaten dudana da, pasatu denak baino, niri ematen didala min gehiago pasatu ez denak.

I.U.: Pentsatuta geneukan gure etorkizuna zelakoa izango zen, zer egitea gusta-



tuko litzaigukeen....

J.A.: Indarrak norabide batean ipini dituzu eta bat-batean geratzen zara noraezean. Eta oso traumatikoa da, bai: Nare jaio egin da, ez dugu disfrutatu, hil egin da... Baina berez ikusten baduzu esaten duzue, ba begira pertsona bat bizirik dago, zeozer pasatu zaio, eta asko sufritu gabe hil da; ba hori berez ez da txarra, kontua da Nare bost egunegaz hil dela eta ez dugula eduki aukera disfrutatzeke, edo haserretzeke edo... Askotan, pasatu denak baino pasatuko ez den horrek ematen dit min.

I.U.: Edo pasatu denak eta pasatuko ez denak.

J.A.: Gabon Zaharretan esan nion Iratiri momentu batean, amaitu da 2023a, eta sutara botako dugu. Eta esan zidan Iratik, "baina ni haurdun geratu naiz 2023an", bueno ba orduan iraila botako dugu sutara, baina iraila ere ez, ze Nare jaio zen irailean, orduan sutara irailaren 9a, baina hori ere ez, ze lehen aldiz hartu genuen gure umea eskuetan, eta azken aldiz. Hor ere ez da zuria edo beltza.

I.U.: Esaten genuen, "2023 ze urte eskasa", ze Nare hil eta hilabetera aitita ere hil zen, zelako urte beltza, baina nik ez dau-

kat halako pertzepziorik, niretzat izan da amaiera bat oso-oso latza eta oso gogorra, baina egon dira gauza positiboak ere bai. Dena dela, mina bizi egin behar da, eta ez da tapatu behar, bizi egin behar den gauza bat da aurrera egiteko.

J.A.: Azkenean bakoitza saiatuko da egiten ahal duen onena, ahal duen moduan, ez da nahita egongo bere burua zigortzen. Orduan, tamalez holako zeozer gertatzen bazaizu, ba saiatu sozializatzen, konpartitzen pixka bat tribuarekin zama hori.

I.U.: Guri behintzat berba egiteak on egiten digu.

J.A.: Hori izan da gure istorioa. ●

Apirilekoa, kalean!

**EUSKARA
IKASLEA
ZARA?
IRAKASLEA?**

- **EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT**
- **BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT**
- **10 ZENBAKI URTEAN**

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.



Iritziak

Europa gainbeheran?



**BALEREN BAKAIKOA
AZURMENDI**
EKONOMIALARIA

Europar Batasuneko (EB) Legebiltzarra berritzeko hauteskundeak deituta daude datorren ekainerako eta iraupena 2029 artekoa izango da. Amaitzean dagoen legealdi honetarako, Ursula von der Leyen batzordeburuaren helburuetako bat zen Europa berdea sustatzea, baina xede hori betetzea konplikatu zaio, Bruselan eragin handia duten lobbyek ez baitiote bidea erraztu.

Izan ere, energia iturri gisa, berdeen artean, energia nuklearra eta ikatzarena onetsi behar izan ditu. Von der Leyenen norabide egokitzapen horretan garrantzi handia izan du Frantziako Estatuak, non zentral nuklearrek elektrizitate ekoizpenaren %70 erdiesten baitute. Ikatzen erabilera, aldiz, Alemaniak presionatu du elektrizitatea sortzeko, Errusiatik zetorren gas merkea urritzeak ere zer esana izan baitu.

Bestalde, legealdi honen erdialdean Ukrainako gerra hasi zen eta egoera erabat okertu da EBrentzat, Errusia eta AEBen artean preso geratu baita. Alemaniak EBren lidergoa izan behar zuen, baina sozialdemokratik daude boterean eta horiek NATO zale gisa ezagutarazi dira; eta AEBek markatzen duten norabide horretan alemaniar berdeek eta liberalek gustura amore eman dute. Berdeak bakezale ziren, 1980ko hamarkadan, eta gaur Gazako genozidioan Israelen lerratuta daude.

Datorren legealdirako EBren helburu nagusia segurtasuna izango da eta, aldiz, Europa berdea saihestuko da, are gehia-

Ukrainako gerrarako
EBk aurreikuspen
ekonomiko okerrak
egin zituen, hein
batean AEBek
xaxatuta, helburua
europarren autonomia
murriztea baita

go nekazaritza industrialaren mobilizazioen aurrean burua makurtu ostean. Segurtasun hori bermatze aldera, Trumpen eskatu bezala bere agintaldian, defentsa gastua BPGren %2ra heltzea gura dute.

Ukrainako gerra dela eta, EBk aurreikuspen ekonomiko okerrak egin zituen, hein batean AEBek xaxatuta, beronen helburua europarren autonomia murriztea baita. Izan ere, behin gerra hasita, Errusiari hamahiru zigor ekonomiko ezarri zaizkio, eta paradoxa da EBren ekonomia, batik bat Alemaniarena, gehiago kaltetu dela Errusiakoa baino.

Zergatik paradoxa hori? Lehenik, Siberiako petrolio eta gasaren norabidea ekialdera zuzendu delako, eta hori Siberia Indarra 2 deritzon gasbidea erakitzeke dagoela. Beraz, Alemaniara etor zitekeen gas merke eta egokia, Txinara doa, Errusiak gerra finantzatzeko funtsak erdiesten dituen bitartean; petro-

lio Txinara eta Indiara doa, eta kasu askotan Europan kontsumitzen da.

Halaber, nor ez da oroitzen nazioarteko finantza ordainketak burutzeko SWIFT sistemaz? Europarrek uste zuten sistema horretatik Errusia kaleratuta bere ekonomiak porrot egingo zuela. Eta beraien sistema propioa sortzeaz gain, txinatarrek eta errusiarrek beraien diruez ordainketak egitea adostu zuten eta SWIFT sistema saihestu. Orain, EBk atzerriko errusiar aktiboen etekinak erabili nahi ditu Ukrainako gerra eta europar berrarmatzea finantzatzeko. Proposamen horrek aurrera egingo balu, sistema kapitalista liberalaren oinarri nagusia, hots, jabetza pribatua sakratua dela, erabat aldatuko litzateke eta ondorio neurtezinak izango litzuke. Adibidez, Kubako lur-jabe handien desjabetzeak nazioarteko legediarekin bat etor litezke? Bitartean, Errusian seriozki hartu dute informazio hori eta nazioarteko epaitegietara joko dutela iragarri dute, luze iraun dezakeen prozesua abiatuta.

Azkenik, Alemaniako ekonomia krisialdian murgilduta dago 2023tik, batik bat Errusiatik datorkion erregaia garestitu zaiolako, baita inbertsioak egiteko interes tasak altu daudelako ere. Ondorioz, 2023an, BPGa -%0,3 hazi zen. Hortik, bai Alemaniak, baita EBk ere, berrarmatzeari ekitea, Errusiarekiko segurtasuna bermatze aldera. Ez da ahaztu behar Alemanian naziak politika ekonomiko keynestar hori aplikatu zutela eta azkenean 26 milioi sobietar hil zirela. ●

Aste Santua eta ramadana



GORKA MENENDEZ
MILITANTEA, NEKAZARIA
ETA BOTANIKOA

Urteak daramatzat nire herriko Elkarlaguntza Sarean militatzen. Bertako Etxebizitza Sindikatuan zenbait jatorritako jendea baten gara eta komunitate musulman handia dago. Aurten, ramadana dela eta, Elkarlaguntza Sare osotik gau batean ramadan gosaria egin dugu. Eztabaida sortu du horrek, batzuentzat kutsu erlijiosoan duten ospakizunek ez luketelako gurea bezalako antolakunde laiko batean lekurik izan behar.


Erljioarena gai zinez interesgarria da eta kontraesan ugari azaleratzen ditu gurean. Aurten ramadan gosaria ospatu dugu, gure kide musulmanekiko lotura indartzeko, baita hori bezalako tradizio baten atzean interesgarriak iruditzen zaizkigun balioak daudelako ere: komunitatearen sendotzea, kidesunaren indartzea... Zentzu horretan, nik argi daukat erlijio guztiek eduki dominatzaile eta zapaltzaileak dituztela, baina,aldi berean, askapen borroka bultzatu dezaketen balioak gordetzen dituztela beraien barruan. Ikus Askapenaren Teologia, langile mugimendua eta apaiz gorrien arteko lotura, ENAMen kristautasunak izandako garrantzia, deskolonizazio prozesuetan zenbait erlijioak izan duten garrantzia... Edozelan ere, horrelakoetan tentuz ibili behar gara, elkartasun eta ahizpatasun ariketa dena erlijio jakin baten apologia bilakatu ez dadin.

Bestalde, geure burua laikotzat dugu onontzat erraza da islamarekin izaera erlijiosoan duten elementuak seinaltzea, kulturalki erabat arrotzak egiten zaizkigulako. Baina betaurreko etnozentriko-kolonialak kentzen baditugu

Erraza da islamarekin izaera erlijiosoan duten elementuak seinaltzea. Baina euskaldun "natiboak" kulturalki erabat kristauak gara

konturatuko gara euskaldun "natiboak", laikotasunak laikotasun, kulturalki erabat kristauak garela. Eta modu inkontzientean erreproduzitzen ditugula izaera kristaua duten jokabideak. Urrunegi joan gabe, Aste Santuan ez da egin sindikatuko batzarrik, gure jai guztiek santu kristauen izenak daramatzate...

Onar dezagun: *orain arteko euskaldunok*, oro har, erro kristauak ditugu eta gaur egun oraindik kulturalki kristau-katolikoak gara erabat. Aberri Eguna



DOM CAMPISTRON

bera Pazko egunean ospatzen da, atera kontuak. Gakoa hemen ez da erro horiek erabat ukatzea eta zakarrontzira botatzea: islamarekin eta gainontzeko erlijioekin bezala, oskol kontserbadoretik harago gure tradizio kristauetan badaude potentzial eraldatzaileak duten balioak eta ohiturak.

Ukaezina da euskalduntasuna gero eta izaera multikulturalagoa eta multierlijiosoagoa hartzen ari dela. Eta hala bedi! Bestela, euskalduntasuna agortua egongo da hamarkada gutxitan. Horrek esan nahi du erlijiotasunak euskalduntasunaren berreraikitze prozesuan pisu handia izango duela eta komeni zaigula gai irristakor honen inguruan hausnartzen hastea. ●



SUKAR HORIA

Superretik Subera

Iaz ireki zuten Supersurraren fase berria. Bilboko azken haran naturala porlanez zikindu ostean, bidesaria ordaintzeko prest dauden gidariek, eta erratuta Supersurrera sartzen diren horiek, minutu pare bat irabazi ahal dizkiote erlojuari.

Eraikuntza enpresek dezente gehiago irabazi dute, 220 milioi euro, zehazki. Zergin bidez azpiegitura hori ordaindu behar izan dugun bizkaitarrok beste horrenbeste galdu dugu, eta, klima larrialdiaren ondorioak pairatuko ditugunok, beste itxaropen puska bati uko egin behar izan diogu.

Baina azpiegitura horrek ez du Bizkaiko aberatsen porlan gosea ase, eta Foru Aldundiak Pradalesen ahotik iragarri du uda ostean Subflubiala, edo Itsasadar Azpiko Tunelaren eraikuntza, martxan jarri nahi dutela. Autobide berriak Leioa eta Sestao lotuko lituzke 3,5 kilometro inguruko tunel baten bidez.

Momentuz, Foru Aldundiak 450 milioi bideratuko dituela iragarri du, baina Supersurraren eredia jarraituz gero, kopuru hori dezente handituko da, bereziki kontuan hartzen badugu zulatu behar den ingurunea harez, urez eta lur kutsatuz josita dagoela (begiratu Donostiako metroari).


Supersurraren biktima nagusia Bolintxu ibarra izan zen era berean, oraingoan Artatza-Romo institutua izango da kalte handiena jasango duena. Izan ere, tunela

ikastetxe albotik (eta patioaren azpitik) pasako litzateke. Ikasle eta langileek jasan beharko lukete gutxienez lau urte iraungo duen obra, eta batere makalak ez diren ondorioak pairatuko lituzkete: 90 dezibelio inguruko zaratak, kutsadura, kamioiek dakarten arriskua... Zein gurasok nahiko luke bere seme-alabek hori sufritzea egunean sei orduz? Zein langilek nahiko luke hori izatea bere eguneroko ogia lanean? Finean, institutuaren beraren etorkizuna kolokan jarriko luke proiektuak.

Baina institutua ez da kaltetu bakarria izango. Bizkaiko Foru Aldundiak berak onartzen duen moduan, autobide berriak inguruko trafikoa %33 handituko luke, kutsadura eta berotegi efektuko gasen isurketak handituko lituzke, eta, beraz, bizkaitar guztiok kaltetu. 450 milioi horiek beste zeozertarako erabiltzeak lagun zitzakeen beste herritar horiek ere kaltetuak izango dira: Osakidetza itxaron zerrendetan daudenak, garraio publikoaren erabiltzaileak, zainduak izan behar duten horiek...

Azpiegitura horren irabazleak erraz ondoriozta ditzakegu: eraikuntza enpresa. Beste zein proiektu txikitzaile izango ote dute kaxoian gorderik? Zeintzuk izango ote dira kaltetuak? Jakin nahi ez badugu, hobe dugu posible dugun guztia egin Subflubiala gelditzeko. ●

Zoriontasuna



EVA PEREZ-PONS ANDRADE

Zoriontsuago izateko te matcha edaten hasi naiz goizetan. Mugikorrean agertzen zaizkidan iragarrien arabera, gaitz guztiak kentzen ditu edari berdeak; antsietatea eta nekea, batik bat. Deabruak zaporerik balu, te matcha zaporea izango luke. Edo algarroba zaporea. Azkenean, engantxatu egin natzaio zapore mikatzari, deabruari bezala.

Merituak eginda lortzen da zoriontasuna kapitalismoan; zoriontasuna ez dator debalde, zerbait egin behar da zoriontsu izateko. Batez ere kontsumitu. Zioen Juanjo Olasagarrek *Puskak biziz*

poesia liburuan, duela 24 urte, zoriontasuna burges doilor heterosexualek ezarritako diktadura demokratikoa dela. Urteak pasatu ahala, zentzu handiagoa hartzen diot esaldi horri. Zoriontasuna hegemoniak sortu baldin badu, kontra-hegemonian ezingo gara sekula zoriontsu izan. Bateriaezintasun horrek lasaitzen nau. Zoriontasunaren mitoa deseraikitzen laguntzen dit. Hala ere, noizbehinka, mitoaz kontziente eta funtzionatuko ez dutela aski dakidan arren, saiakerak egiten ditut zoriontsuago izateko. Kontraesanean bizi ez dena pribilegioan bizi da, argi dago. ●

Bixkor



ENEKO GORRI GANTIER
EUSKARA TEKNIKARIA

Bake artisauen Parisko auzira naraman trenean idatzi ditut lerro hauek. Landetako oihanean sartzen ari ginela hasi nintzen gai batzuei pentsatzen: desobedientzia zibilak eta ekin-tza zuzenak irekitzen dituen aukerak, euskal gatazkaren tratamendua ‘frantses’ hedabideetan... A, eta Korrika ere izan dugu... Euskara, kontsentsu sozio-politikoa, jazarpen judiziala, errealtate demolinguistikoa... “Asko idatzia izan da horri buruz”, pentsatu dut nire baitan. Bordeleko geltokira iristean, inspirazioa seko-pana nuen oraindik.

Pirka-pirka, Korrikaren iristean nire gurasoen aspaldiko lagun batekin izandako elkarrizketa burura etorri zait. Xutik taldearen kontzertu erdian, Azterketak Euskaraz kolektiboko gazte batzuek bi minutuko diskurtsoa oihukatu zuten, harro, tinko eta ozen. Eta ze plazera “Gora Euskal Herria askatuta!” bati, “Gora!” hain ederra erantzuten dion herria begipean ikustea. Oro har, maite ditut ahoan bilorik gabe mintzo diren pertsonak. Plazer hartzen dut errealtate trikimailurik gabe izendatzea ausartzen diren lagunak entzutea. Goxo zait, hizkera politikoaren lausotzea bizi dugun garaiotan, inportantea baitzait gibel hartzea eta oinarrietara itzultzea.

Badakigu errealtatea zein dorpea den. Baina borrokatzen segitzeko, bakoitzak behar du bere erregaia. Nirea ez da baikortasun zozo eta itsua, baina urratsez urrats irabazten ari garela konbentzitu izatea

Eta taula gainera igo ziren gazte horiek bazuten ausardiatik, etorkizunetik eta determinaziotik. Komunio istant goxoa eskaini zigutela iruditu zitzaidan, baina nik baino esperientzia eta gogoeta maila askoz handiagoa duen delako familia-lagun horri nire plazera adierazi niolarik, ohartu nintzen ez gurela

pertzepzio bera izan. “Haien diskurtsoa nire haurren garaiko ikastola bezain prefabrikatua da! Erraz da 18 urtetan iraultzaile izatea, baina gero zer? Denak bezala frantses administrazioako funtzionario edo bankuko langile bukatuko dute haiek ere. Eta funtsezko arazoak ez dira izendatzen hor. Nork aipatzen du gure arazo guzien muinean demografia arazoa dela? Etorkizunik ez duen eta bi urtean behin ehorzketa aitzineko besta erraldoia antolatzen duen herria gara...”.

Garagardo pitxerra gure edalontzietan hustuz, “doi bat pesimista zela” ohartaraztera menturatu nintzen. “Pesimista ez, errealista!” batekin erantzun zidan. Formula itxietatik haratago, badakit arrazoi parte handia duela. Mundu solidarioago, Euskal Herri askeago, harreman parekideago, planeta jasangarriago, jendarte orekatuago... eta abar luze bat amesten dugunok, badakigu errealtatea zein dorpea den. Indar harremanak erabat desorekatuak dira, hain sistema azkarrak ditugun parean. Baina borrokatzen segitzeko, bakoitzak behar du bere erregaia. Nirea ez da baikortasun zozo eta itsua, baina urratsez urrats irabazten ari garela konbentzitu izatea. Bakoitzak atzeman dezala berea, badugu lan! ●

BABESLEA:



Bi astelehenean behin ARGIA
eta plataforma guztietan

Ezer ez eta festa Oihan Indartekin

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)



Apirilak 15, astelehena, 20:00etan argia.eus-en

EUSKAL TELEBISTAK 40 URTE

ARDATZ BERTIKALA, ERABAKIEN ADIERAZLE

40 urte bete ditu euskal telebistak, eta 40 urteko ibilian goitik behera aldatu dira gauzak: telebista konbentzionala etxe batzuetan egotetik, guztietan presentzia hartzera pasatu da; baina egun, ikus-entzunezkoak nahieran ikusteko gehiago baliatzen da telebista, erreproduzitzailerik gisa, antenaren emisioarekin konektatzeko baino.

Urtzi Urkizu *Berria*-ko kazetariak ETBren historia aztertu eta etorkizunari buruzko gogoeta egin du *Txoria hodei artean* (Berria, Elkar eta Jakin, 2024) liburuan, eta 35 elkarrizketatuei, sektoreko aditu, aritu eta agintariei, galdera bera luzatu die: ikus-entzunezkoen munduan bidegurutze batean egonik, etorkizun horretan behar al dugu euskarazko telebista?

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA



iritzi-bilketa soila egitetik harago, euskal gizartean gailentzen den kezka bati erantzuten dio liburuak, Urtzi Urkizu egileak aurkezpen-ekitaldian azpimarratu zuen gisan. Hau da, liburuak ez du egiten euskal telebistaren 40 urteko ibilbidearen azterketa, edo ez hori bakarrik, behintzat. Horretan sakondu du ARGIAri eskainitako elkarrizketan: “Etorkizunari begiratzeko premia ikusten genuen bai nik eta bai editoreek, telebistaren etorkizunaz oro har, ez bakar-bakarrik ETBz. Ikus-entzunezkoen mundua bidegurutze batean dago, gauzak asko aldatu dira azken urteetan, eta gehiago aldatuko dira datozenetan. Etorkizun horretan, behar dugu euskarazko telebista? Ziur aski, elkarrizketatu gehienek diotenez, ikuspegi soziologikotik beharko dugu euskarazko telebista, ahal bada publikoa eta sendoa. Zein leihotan, zein formatutan garatuko den, Primeran plataformaren bidez izango den edo Apple-ren zein betaurrekoren bidez ikusiko ditugun edukiak... Horrek izango du garrantzia, baina ez da hori egin behar den galdera; auzia da ea ETBk lehenatasuna eman nahi dien euskarazko edukiei ala ez”.

Nagusiki, bi ataletan bereiz daiteke muina: bata, euskal telebistaren jarduna, kazetaritza jardunbideetan eta euskararen normalizaziorako lanean; eta bestea, euskal telebistaren beraren kudeaketa, Eusko Jaurlaritzaren esku hartzea eta antolatzeke ereduak. Bigarren horretatik hasiko gara, horretan dagoelako ETBk egin eta ematen duenaren ernamuina.

AGINTEAN NOR, EMAITZA HOR

Zenbaitetan ez da alferrik esaten *Teleberri=Telebatzoki*, agintean dagoen alderdiak erabakitzen baitu nork gidatzen duen euskal irrati telebista publikoa, eta *nork* horretan, ziurrenik *nola* ere sar daiteke. Hiru urte eskaseko salbuespenarekin, alderdi batek soilik eduki du agintea, baina besteren bat egon balitz ere gerta zitekeen gauza bera, antolaketareta eta erabakitze-ereduak horretarako ahalbideak ematen dituelako.

Eusko Legebiltzarraren eta Jaurlaritzaren kontrolpean dago EiTb. Garai batean Jaurlaritzak hautatzen zuen EiTbko zuzendaria, baina eskumena Legebiltzarrerara aldatu zen, gauzak argiago egiteko asmotan-edo. Baina praktikan ezer gutxi aldatzen da, ez bada Jaurlaritzan dagoen alderdiak edo koalizioak gehiengorik ez daukala Legebiltzarrean. Behin zuzendaria aukeratuta, pertsona horrek be-

“ ”

“Dena dago alderdi batek hautatu duen pertsonaren eta bere ingurukoaren menpe”

Urtzi Urkizu

rak osatzen du bere lantaldea. Ez da hor amaitzen alderdi politikoen esku hartzea: Gasteizko ganberako gehiengoa, mimetikoki, Administrazio Kontseilura ere pasatzen da.

Bi arazo daude aterki beraren pean, Urkizuren esanetan: “Batetik, goitik ez dago organo independenterik; eta bestetik, Administrazio Kontseiluak ez du erabakimen errealik. Beraz, dena dago alderdi batek hautatu duen pertsonaren eta bere ingurukoaren menpe”. Galdera egin eta gogoetarako tartea utzi du: “Ho-

rrelaxoxea izan behar al du euskal irrati telebista publikoak? Eztabaida horrek egon beharko luke gizartean, baita alderdi politikoen artean ere”.

Urrunegi joan gabe bi adibide ekarri ditu, Valentziakoa eta Kataluniakoa. Erki-dego horietako telebista autonomikoetan lehiaketa publiko bidez hautatu dituzte zuzendari nagusiak. EH Bilduk horixe bera proposatu du iraugintzearen lege-gintzaldi honetan, baina egitasmoa ez zen aurrera atera, EAJk eta PSE-EEk nahi izan ez zutelako.

EAJk zuzendari nagusia aukeratu ez zuen aldi bakarra 2009tik 2013ra izan zen, Patxi López lehendakari zenean. Alberto Surioren garaia izan zen hura. Ondo gogoan du Urkizuk, besteak beste, *Deia* egunkariak argitaratzen zituen artikuluetatik: “Egunero-egunero sekulako egurra ematen zion EiTbri”. Garai hartan bertan, ez da ahanzi behar, makina bat aldaketa egin zituela zuzendaritza hark; tartean, hurren entretenimendu zen *Goazen* fenomenoaren etena. 2009ko urtarrilean estreinatuta zen pelikula, eta izandako ospea medio telesaila presta-



© GORKA RUBIO / FOKU

tzen hasi ziren, udazkenean emateko. Martxoan izan ziren hauteskundeak, López izendatu zuten lehendakari, eta telesailaren lehen denboraldia eskaini zuten –audientzia datu onekin–, baina ez zuten berri. 2016an berreskuratu zen.

Zuzendari nagusiaren hautaketa erduaz hitz eginda, liburuko elkarrizketatu askok dioten gisara, egileak ere honelaxe dio, aldatu behar da jarduteko moldea. Alderdikerietan jausteko aukerak daudelako, bestela. Ikus-entzunezko Kontseilua sortzea izan daiteke aukeretako bat –EH Bilduk proposatu zuen, baina hori ere atzera bota zen; areago, Bingen Zupiria sailburuak esan zuen “organo nahikoa” daudela–. Urkizuk proposamen haxe egiten du: “Interesgarria litzateke profesionalen eta aditu independentez osatutako erakunde bat egongo balitz. Nire proposamena bide horretan doa, eta era berean, Euskal Herri osoari ere begiratzea, ez soilik hiru lurraldeei; Ikus-entzunezko Kontseilua zazpi lurraldetakoa izatea, Elkargoarekin eta Nafarroako Gobernuarekin landua”.

Egon daiteke kontrapuntu bat hor: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarrek finantzatzeko dute EITB. Horri erantzun dio Urkizuk: “Castroko –Kantabria– informazioa ematen dute, baina Errioxakoa ere; kazetariak erraz joaten dira hara, gertakariaren bat badago”. Eta era berean, bi adibide ipini ditu: bata *Conquis*, eta bestea *Atrápame si puedes*, ETB2ko bi lehiaketa-programa. “Zuberotarrik egon da inoiz programa horietan? Aldiz, Andaluziako eta Madrilgo lehiakideak ikusi ditut hor, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarren diruarekin ordaindu zaie”.

Lehiaketetako erreferentzia asko, batez ere ETB2n, Espainiakoak izan ohi direla ez da dudarik. Baita albistegieta-ko informazioa ere. Horretan, ordea, nabarmendu behar da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako alderdiek gero eta gehiago begiratzen dutela Madrilera. Ezbairik gabe, dena den, agintean dagoen alderdiak zeresana du telebista publikoaren eskaintzan, eta eskaintza horretan sartzen da hizkuntz politikaren auzia.

PROIEKTU ELEBIDUNA, SORRERATIK

Sortu baino lehenagotik, proiektu elebidun gisa irudikatzen zen ETB. Euskaraz egiten hasteara Eusko Jaurlaritzaren azken uneko agindua izan zela oroitzen dute Martin Ibarbia, Luis Mendizabal eta Luis Alberto Aranberri *Amatño* orduko lantaldearen gidaritzan zeuden kideek, liburuan kontatzen dutenez. Jaurlaritzaren Kultura Sailak telebista elebiduna egin asmo zuen, baina Hizkuntz Politika departamentuaren esanetan, kate berean bi hizkuntzetan aritzea kaltegarria izan zitekeen euskararentzat.

1982ko abenduaren 31n ikusi zuen argia euskal telebistak. Euskaraz egin ziren lehen emanaldiak, eta urtea betetzerako hasi ziren gaztelaniako edukiarekin tartekatzen, harik eta 1986an gaztelera kate propioa sortu zuten arte. Orduan bihurtu zen lehen katea euskara hutsezko, eta bigarrena gaztelera kate.

Kike Amonarrizek liburuan esaten duenez, orduko hartan ez zen erabaki txarra izan: “Kate bat blindatu zen euskararentzat (...) Bestela, telebista bakar bat izango genuen, eta euskararen presentzia %25ekoa-edo izango zen. Beraz,

kanal elebidun bakarrarekin euskararen presentzia marjinala izango zen”. Amonarriz eta beste elkarrizketatu batzuen esanetan, euskarazko katea emankorra izan zen euskal kulturaren alde egiteko, euskara batua zabaltzeko, eta haur eta gazteentzat erreferente izateko.

Gaur egun, batik bat, bi kateen arteko “desoreka” nabarmentzen da. Pasadizo ugari kontatzen dituzte hainbat elkarrizketatut, zeinetan ETB2ko zenbait programek, ETB1ekoen antza izanik ere, aurrekontu eta lantalde handiagoa izan duten sarri. Elixabete Garmendiak –ETBko langilea izan zen urte luze– ondo go-goan du nola esan zioten zuzendaritzatik: “ETB1erako, ahal duzuen egina”.

BI HIZKUNTZAK BERTIN?

Garmendiak honela bizi izan zuen ETB2ren sorrera eta haxe dio horrek ekarri duenaz: “Gaztelaniako lanak egin beharra ez nuen mehatxu moduan hartu. Baina gero ikusi dugu, urteak pasatu ahala, gaztelaniako albistegiak izan direla nagusi, eta euskarazkoen gutxiespena eta hondamendia ekarri dutela. Garai hartan ez nuen pentsatzen norabide hori hartuko zuenik, inondik ere. Izan ere, hasieran euskarazko edukiek garrantzi handiagoa zuten”.

Alex Aginagalde Pantailak Euskaraz mugimenduko bozeramaileak bestelako ETB2 bat irudikatzen du: “ETB2 behin-behineko tresna bat izan zitekeen erdal-dun elebakarrak euskarara ekartzeko. Baina horretarako, euskaldunek libre agertu beharko lukete ETB2n euskaraz hizketan, eta fikzioa, telesailak eta dokumentalak euskaraz eman beharko lirateke, gaztelaniako azpidatziekin”.



EITB MEDIA

'Goenkale' eta 'Wazemank' telesailtako argazki bana.





Pilota emankizunak dira audientzia datu onenak dituztenak. Irudian, ETBko pilota emanaldien lantaldea, 2021ean.

Ia 38 urte pasatu dira ETB2 sortu zenetik, eta badira bi kateen eredu aldatu behar dela aipatzen duten ahotsak. Askok dira ETB2 ixtea eskatzen dutenak, edo, gutxienez, kate horrek normaltasunez euskararen presentzia bermatu beharko lukeela diotenak. Bistakoa da ETBko zuzendaritzak bestelako ikuspegi bat duela. Esaterako, Unai Iparragirre ETBko zuzendariak ARGIA n-2843. zenbakian- zera zioen: “ETB2 ixtearekin edo baliabide gutxiago ematearekin ez nago ados. Herri honetan denok ordaintzen ditugu zergak, bai euskaraz bizi nahi dugunok, bai gaztelaniaz bakarrik dakitenek. Eta uste dut haiei ere zerbitzu bat eman behar zaiela. (...) Zoritzarrez, euskaraz hitz egiten dugunak erdia baino gutxiago gara herri honetan. Eta hala ere, gure aurrekontuaren erdia euskarazko kateetara bideratzen dugu”.

Horri buruz galdetu dio ARGIAk Urkizuri. Iritzi argia du: “Ni horren kontra nago. Hizkuntz politikak ezin du horrela jokatu. Euskaraz bakarrik bizi nahi dutenek ere jasotzen eta ordaintzen dute Espainiako telebista publikoa”. Hori esanda, liburua eskuetan hartu eta 35. orrian

“ ”
 “Urteak pasatu ahala ikusi dugu gaztelaniazko albistegiak izan direla nagusi, eta euskarazkoen gutxiespena eta hondamendia ekarri dutela”

Elixabete Garmendia
Txoria hodei artean liburuan

zabaldurik du, euskararekin antzekotasunik izan dezakeen atzerriko erreferentzia bila jotzeko. Katalana. Gerard Furest filologo eta irakasleak eredu mimetikoegiz egiten zuen hausnarketa leitu du: “TV3 zerbaitetarako bada, katalana hizkuntza normalizatua dela esateko da, jendeak

irudi hori izan dezan. TV3 ezin da izan errealitatearen ispilua. Kasu horretan, errealitatearen eredu mimetikoa litzateke. Horrekin okertu egingo litzateke katalanaren egoera”. Aipamen horri, gogoetarako esaldi propio bat erantsi dio Urkizuk liburuan: “Hori hala bada katalanarentzat, zer ez da izango, bada, eredu mimetiko bat euskararentzat”.

Bi hizkuntzak -Hegoaldeko ikuspegitik, jakina, baina frantsesarekin ere berdintzat hartuko litzateke- parez pare jartzea akatsa dela uste dute hainbat elkarrizketatutako, baita Urkizuk ere. Ez dute uste bide zuzena denik %50-%50 jokoak egitea, herri elebiduna den aitzakian. “Horrek beti egingo dio kalte euskarari”, dio Urkizuk, “hizkuntza gutxitua delako geurea eta gaztelaniaz sekulako eskaintza dagoelako, publikoa eta pribatua”. Eta ildoari segika, Pantailak Euskaraz mugimenduaren izenean Izaskun Rekaldek zera zioen: “ETBk bi hizkuntzak maila berean hartzen baditu, euskalduna galtzaile aterako da marko orokorrean”. Hiru Damatxo ekoiztetxeko Lander Arretxeak ere sententzia argia du: “ETBk beti nahi du denekin ondo geratu”. Askok dira, libu-

ruan, ildo horretan doazen aipamenak.

ZER ESKAINI...

Liburuko solaskide gehienek baieztatu dute: ETB2n badaude genero batzuk ETB1en ez daudenak. Esaterako, bi-koiztutako zinema oso maiz ematen da ETB2n, eta oso gutxi ETB1en. Eztabaida politikoko programetan ere, goizeko eta gaueko saioak ditu ETB2k, eta goizekoa soilik ETB1ek. Eta umorezko programen kasuan, urte askoan egon dira ETB2n, eta ETB1en ez.

“Alderaketa handia” dela dio Urkizuk, zeinean balantzak gaztelerazkoaren alde egiten duen beti, salbu eta kirolaren kasuan. Batez ere pilota. Erreferentea da eta adin askotako jendea barnebiltzen du. Baina oinarrira, ETB1en funtsera, euskara eta euskal kultura zabalatzeko duen helburu eta ardatz horretara jo behar dela adierazi du Urkizuk: “Ez gaitezen engaina, ez dezagun sinetsi pilota edo arrauna ikusten ari diren horiek guztiak ari direnik euskaraz ikusten eta ulertzen, ari direnik euskal kulturarekin askotariko aberastasunak jasotzen. Pilota partida bat ikus dezakezu [Xabier] Euzkitze entzun gabe; [Jokin] Altunak berdin-berdin jokatu du”.

Kirol emankizunak dira ETB1en puntu indartsua, audientzia datu onenak ematen dituztenak, batez ere pilotak, eta uda sasoiarra arraunak ere bai. Kirola programa propioa da telebistaren barruan, bere aurkezle eta kazetariekin, tarte propioarekin, bere babesletzarekin. Kirol zale asko dago Euskal Herrian, eta Urkizuren esanetan, horretan asmatzen du euskal telebistak.

“ ”

“ETBk nora iritsi behar du? Besteak iristen ez diren tokira. Euskara da tresna bakarra beste plataformak iritsiko ez diren lekuetara iristeko”

Garazi Goia

Txoria hodei artean liburuan

Beste zentzu batean ere erreferente da kirola: hizkuntzaren zabalpenean. Pilotako esamoldeak-eta ezagutarazi dira, sortu da hiztegia, eta pozgarria da hori euskararentzat. Gauza bertsuak gertatu ziren bere garaian *Dragoi Bola*-rekin, *Goenkale*-rekin edota *Wazemank*-ekin; hainbat esapidek bizia zuten kalean, baita familia erdaldunetako seme-alabengan ere. Gaur egun, ordea, horrelakorik ez dela ikusten adierazi du Urkizuk.

Euskararen ezagutza igo da, baina erabilerak ez du bat egiten; horixe diote datu guztiak. Ināki Iurrebasoren ikerketa ere jarri du mahai gainean Urkizuk. “Erabilera horretan, bere garaian, euskal telebistak eragina izan zuen. Saiatu beharko litzateke zerbait asmatzen, behintzat, gazteek euskaraz gehiago ikus dezaten eta horrek eragin positiboa izan dezan hizkuntzaren erabileran”.

... ETA NOLA ESKAINI

Garmendiak liburuan dioen beste kontu batekin ere bat dator Urkizu: kulturari eskaintzen zaion tartea apala da oso. “Kulturizidioa egiten du ETBk”, esaten du Garmendiak. Badago programa bat, EiTb Kultura, eskaintza interesgarria egiten duena, baina ondotox daki euskal telebistaren ikusleak desordutan ematen dutela eta apenas promoziorik gabe.

Zerbait orokorragoa ere bada, ordea. Esku-eskura datorren adibidea da erreportaje honetarako oinarri darabilgun Urkizuren liburuari albistegian eman zitzaion ahotsa: azken albistea izan zen, eta hogeitasegundoko iraupena eduki zuen. Liburuaren egilearen adierazpenik gabe, gainera. Kamera bakarrik bidali zuen ETBk –urrutira joan gabe, etxe honetan, ARGIA Sarietara ere trataera bera ematen zaie-. Horrelakoekin ohituta gaudela dio Urkizuk: “Kultura gaitan kamera bidaltzen dute, kazetaririk gabe, eta albistegiaren hondarretan sartzen da askotan; aldiz, uholde arriskua baldin bada, sei-zortzi berriemaile daude”. Salbuespenak badaude kultura arloko gaiekin, izan Durangoko Azoka edo izan musikari jakin baten kontzertua; puntualak baino ez dira, ordea.

Albistegiez hizketan, Urkizuk anekdota bat ekarri du solasera: “ETBko kazetari oso beterano batek behin komentatu zidan ETBko albistegiak *Tik-Tok-izatu* egin direla, eta adibidea ipiniko dut, horren harira baitzertorren iruzkina. Donostiako Zinemaldian, egun berean, bi dokumental oso indartsuren estreinaldia zegoen –*Karpeta Urdinak* eta *Gesto*–, biak memoria historikoari



EITBko albistegi zerbitzuko aurpegi ezagunak, 2021-2022 denboraldia aurkezten.



EiTBko zuzendari nagusi Andoni Aldekoa, 2023ko irailean, Primeran plataformaren aurkezpen ekitaldian.

© JAGOBA MANTEROLA / FOKU

lotuak, eta bietan gonbidatu zituzten ordezkari politikoak. Egun horretako albistegian, aurkezleak segundo gutxi batzuetan aipatu zituen bi dokumentalak, eta sekulako erreportajea eman zuten gero, Donostian bertan, Zinemaldiko glamourraren inguruan zegoen ezkontza bati buruzkoa. Sei urtez dokumental batean lanean egon den sortzaileari ez zioten mikrofonoa jarri, eta ezkontza horretako makina gonbidaturi bai. Beldurgarria iruditzen zait jardunbide hori; uste dut telebista publikoaren informazioak ez lukeela hortik joan behar”.

PRIMERAN PLATAFORMA: ZEIN LEKU DU?

Atzera begirakoari erreparatzeaz harago, presenteari eta etorkizunari ere begiratu dio Urkizuk *Txorria hodei artean* liburuan. Eta, ezinbestean, plataforma digitalen erauntsia aztertu behar da.

2023ko irailean estreinatu zuen EiTBk Primeran plataforma, euskarazko edukien ataria, doakoa, EiTBren eduki propioetatik harago joan nahi lukeena. Liburuko elkarrizketatu guztiek esaten dute, baita egileak ere: ez da bate-re erraza unibertso horretan lehiatzea. Festara berandu batu da, gainera.

Garazi Goia ikus-entzunezkoen alorrean aditua da, Sky eta BBCn ardura garrantzitsuak edukitakoa, eta gaur egun Europako telebista publiko gehienekin egiten du lan, aholkulari gisa. Berak dio telebista publiko guztiek oinarrizko arrazoi berberak dituztela: eskaintzari

dagokionez, askoz aukera gehiago duedela eta lehia oso handia dela; telebista kontsumitzeko joerak aldatzen ari direla eta horrek aldatu egiten duela edukia egiteko modua; eta telebista publikoek, oro har, gero eta zailagoa dutela jende gaztearekin konektatzea. Denboraren aldagaia ere kontutan hartu behar dela dio, eta estrategiak planteatzeko galdera egiten du: gazte batek denbora libre jakin bat baldin badauka, zergatik sartuko da Primeran plataforman? Unibertso zail horretan lehiatu beharko du euskal telebistak; “baina eskaini beharko zaio zerbait, eta iritsi egin beharko da harengana”. Aitortu behar zaizkio Primerani orain arte izandako emaitza onak: esaterako, *20.000 especies de abejas* pelikulak 50.000 ikusle izan ditu.

Urkizuri gustatuko litzaioke Moriarti, Txintxua Films edo dena delako ekoizleek Primeranekin tratuak egin eta euskarazko telesailak egingo balituzte ETBrentzat, baina bada arazo bat: aurrekontua. Langile kopuru handia duela dio Urkizuk; kasik 1.200 langile, eta egitura ere mantendu beharra: “Jakina, jarriko bazenitu langile horiek guztiak euskarazko edukiak egitera, argi dago gauzak aldatuko lirakeela”. Eta hori esanda, Arretxeak liburuan egiten duen planteamendua ekarri du mahai gainera, hark proposatzen baitu ETB-2ko aurrekontua Primeranerako eduki ausartak egitera bideratzea. Urkizuk dio Arretxearen gisako jende gazteari gehiago entzun beharko litzaiokeela.

“Gauza asko landu behar dira”, dio Urkizuk, bai Primeran plataforma eta bai ETB benetan erreferente izango badira. Ez du dudarik, hala ere, ETBkoak horretan ari direnik. Herri mailako eztabaidak sustatu eta gogoetak egitea gustatuko litzaioke Urkizuri, gauza batzuk planteatzea, zuzendari nagusiaren hautaketa prozesua, kasu, edo euskaraz sortzeari, bikoizteari edo azpi-idazteari eman nahi zaion garrantzia. Urkizurekin gogoetatzeko aukera izango da; liburuaren aitzakian, hainbat lekutan antolatuko dituzte liburu-aurkezpen eta eztabaida-saioak. ●

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu

SIGACUS

☎ 943 453 588 · www.sigacus.com

mitxelena *Koop*

MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen
mekanizazioan espezialistak

LRQA CERTIFIED AS 9100

LRQA CERTIFIED ISO 9001

Eziago industrialdea 21, HERNANI

☎ 943 55 25 12 - 16

✉ info@talleresmitxelena.eus

🌐 www.talleresmitxelena.eus

PIERRE STAMBUL

"Sionistek palestinarrak erreserba batzuetan edo beren lurretatik kanpo nahi dituzte"



Maulen eta Baionan egon berri da Pierre Stambul, Palestinaren alde dabilzan kolektiboek gomitatutik. Judu laikoa eta nazien genozidioa hurbiletik ezaguturikoa da, bere amaren alde guztia deuseztatu zutelako. Erresistente komunistak zituen gurasoak, aita Manouchian talde iraultzailean aritu zen eta Buchenwald kontzentrazio-esparrura bidali zuten. Hortik mamitzen du bere judu identitatea eta sionisten aurkako bere borroka. Frantziako Bakearen Aldeko Juduen Batasuna elkarrearen bozeramailea da.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Hitzaldiz hitzaldi, proiektu sionista, Israelen politika eta palestinarren desagerpen programatua pedagogia handiz azaltzen dabil Pierre Stambul: "Israel jendartezi-dioa bideratzen dabil, hau da, jendarte baten desagerpena. Hori dugu sionismoaren oinarrian: AE-Betako amerindioen edota Australiako aborigenen gisara erreserba batzuetan metaturik edo beren lurretatik kanporaturik eta eskubideak aldarrikatu ezinean nahi dituzte palestinarrak". 2023ko urriaren 7az geroztik areagotu egin den "antisemitismoaren instrumentalizazio" arriskutsua bideratzen dabilzan honetan, gauzak argitu beharra ezinbestekoa

zaio: "Gazan ez dabilta bakarrik palestinarrak sarraskitzen, judaismoa hiltzen dabilta, genozidioaren memoria hiltzen dabilta, antisemitismoaren memoria hiltzen dabilta". Sionismoaren eta Israelen inguruan zabalduriko ideia faltsuen gezurtatzea ezinbestekoa dauka eta horrekin abiatu zuen bere hitzaldia.

Baga: gezurra da erratea juduen itzulerara Palestinara legitimoa dela. Kultura, herri, hizkuntza eta erlijio nahasketen lurraldea izan da betidanik Palestina, hiru erlijio monoteisten leku santuak bertan dira eta sionisten etorrera aitzin, guti ala asko, beti posible izan dute musulmanen (%80), kristauen (%15) eta

juduen (%5) arteko elkarbizitza. 70. urtean, Titus erromatarrek eta bere armadak Jerusalem harturik, milioika judu kokatu ziren munduan barrena eta gertakizun horretan oinarritzen du sionismoak exilioaren eta etorreraren sinesmena. Baina, Israelgo Gobernu Bibliako pasarteetan oinarrituriko programa politikoa garatzen dabilen honetan, garrantzitsutzat dauka oroitaraztea liburu sakratu hori ez dela Historiako liburu bat. Hain zuzen, geroz eta historialari gehiagok dute urte horretako exilioaren kontakizuna gezurtatzen. "Garai eta eskualde ezberdinetan birkokaturiko juduen ondorengoak gara juduok, eta antzinaroko hebrearren ondorengoak, oro har, palestinarrak dira".

Biga: gezurra da erratea arrazoi erlijiosoengatik dutela sionistek Palestina bereganatu. 1960ko hamarkada arte behintzat judaismoa ez da lurralde bati loturiko erlijioa izan eta, gainera, erlijio mesianikoa ere bada –Mesias itzuli bitartean ezin daiteke Israel deitu lurraldera bertaratu–. Hots, Palestina lapurtu eta palestinarrak haizatu nahia ez da helburu erlijioso bat, baina bai 1960ko hamarkadan abiatutako Zisjordaniaren kolonizazioarekin garaturiko pentsaera sionista nazionalista erlijioso fanatikoa. Sionismoak ekarri zuen ordura arte ez zegoen "Palestinaren fetitxizazio" hori.

Higa: argi utzi nahi du nazien genozidio garaian izan ezik, sionismoa eta antisemitismoa beti ibili direla eskuz esku.



Palestinarren genozidioa eta jendartezidioa bideratzen dabil Israel, baina sionisten adierazpenak iturriztat harturik, Stambulek argitu nahi du hori duela sionismoak helburu: "Bereizketaren teoria da sionismoa eta bereizketak kolonialismora, faxismora eta arrazakeriara garamatza".

Hain zuzen, jatorrian Theodore Herzlek teorizaturiko sionismoa "banaketaren teoria" da, juduak eta judu ez direnak elkarrekin bizitzea ezinezkoa den ustean oinarrituriko ikuskera. Adibidetzat du 1897ko Sionismoaren Sorrerarako Kongresuari oztoporik ez jartzeko manua zabaldu zuela Guillaume II enperadore antisemitak -"Ez jarri oztoporik juduak lekutuko dizkigun horri"- . Etsenplutzat du Haavara Hitzarmena ere, Hitler boterera heldu eta sionistek eta naziek 1933an izenpeturikoa, juduen Palestinarako emigrazioa errazteko asmoz gauzaturikoa. 1939a arte iraunen zuen eta horri esker 60.000 judu alemanek emigratu ahal izan zuten Palestinara. Arthur Balfour ministro britainiarra, berdin, antisemita eta sionismoaren defendatzaile sutsua izan zen -1917ko Balfourren adierazpena dugu Israelgo Estatuaren sorreraren oinarrian-.

Laga: Israelen sorrera nazien genozidioari emandako erantzuna izan zen.

"Negoziaketei dagokionez, Netanyahuk badaki su-etena onartuz gero erortzen dela, Trumpen garaipena arte iraunarazi nahi du kontua"



Ez, palestinarren kanporaketa bideratuko zuten instituzio nagusiak genozidioa aitzin sortu zituzten: Juduen Banku Koloniala 1898an; palestinarren lurrik lapurtuko zituen Fondo Nazional Judua 1901ean; Histadrut sindikatu sionista 1920an, eta beste. Sionismoak "etnikoki garbia den estatua" du helburu eta horregatik dituzte arabiarrek -palestinarrak- haizatu behar. Ordezkapen-

kolonizazio hori usaindurik, 1920ko hamarkadan hasiko zituzten lehen matxinadak palestinarrak. Eta horri loturik, boga: nazien genozidioagatik duten errua ttipitu nahian du munduak Israelen sorrera sostengatzen. Hori ere gezurra dela dio Stambulek. "Europak ardura ikaragarria du antijudaismo kristauan eta antisemitismo arrazialean. Kulpaz sentitu izan balute mugak irekiko zizkien 1945ean, baina ez zen horrelakorik gertatu. Kulpaz bereizi dira, arduradun ez ziren palestinarren bizkar utziz guztia".

Sega: Israelen baitako adar politikoen osaketa ere argitu beharra dagoela uste du. Hasteko, Israelgo ezkerrek ere eskuak zikindurik ditu, "ez dago krimenik sozial-demokraten ardurarik gabea". 1948ko Nakba edo 700.000 palestinarren ihesaldi behartua laboristek "aurrez pentsaturikoa eta programaturikoa" izan zen, eta gauza bera 1967ko gerrarentzat. Nola ez, 1993ko Osloko

Hitzarmenaren izenpetzaile Yitzhak Rabin Israelgo lehen ministroa ere laborista zen. Aitzin, Defentsa ministro gisa berak bideratu zuen OLP Palestinaren Askapenaren Aldeko Erakundearen buruzagien aurkako bonbardaketa 1985eko urriaren 1ean eta, ondotik ere, berak erreprimatu zuen 1987-1993ko Lehen Intifada. Logika berean doa Osloko Hitzarmena: "Zer dio hitzarmenak? Okupatzaileak bermatu behar du okupatzailearen segurtasuna. Presoak, estatu palestinar bat, errefuxiatuen itzulera... horretaz hitz egin zuten, baina ez zuten deus izenpetu". Bestalde, argitu nahi du eskuin sionista ere ez dela gauza berria: "1920tik aitzina garatuz doa, tartean dugu Vladimir Jabotinskyren mugimendua faxistekin ariko zena eta Benito Mussolinik berak "gure faxista judutzat" zeukana. Europako eskuin muturreko arduradun guztiak Israelen egon direla ohartarazten dabil Stambul: "Modelo bat da haientzat, lorturiko birkonkista kolonial baten adibidea da, arriskutsutzat daukaten herri bat preso atxiki ahal izanaren adibidea, puntako teknologia garaturik daukanarena".

EGINBEHARREKOA: BOIKOTA ETA PRESIOA

Urriaren 7az geroztik Gazatik bideraturiko palestinarren genozidioa dela eta, egin daitekeenaz galdetu zioten entzuleek: herritar gisa, zer? Eta nazioarteko instituzioek zer? Eta AEBek? Argi dauka: "Herritar gisa, batetik, palestinarrei laguntza bideratu behar diegu, gaurdanik eta gerora berreraikuntzarako, eta bestetik, gure gobernuak presionatu behar ditugu, politikaz aldatu eta okupatzailea zigortu dezaten". Israelen irudi demokratikoa gezurtatzea lortu behar dugula dio. Bide horretan, Hegoafrikaren salaketak eragina izan duela uste du. Boikotarena ezinbesteko tresnatzat dauka. "1969ko Olinpiar Jokoetatik Hegoafrika kanporatu zuten, bere apartheid politikagatik zegoen boikotak bultzaturik. Olinpiar Jokoak dauzkagu Parisen. Beraz, badakizue zer egin behar duzun: palestinar banderak atera eta boikota sustatu".

Lerroak mugitzen ari direla sinetsiz, ez du esperantza galdu nahi. Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusi António Guterresen jarrera aldaketa dauka adibidetzat. Hala ere, estatuen kritikek eta AEBen salaketek ez dute oraingoz eraginik, Stambulen arabera: "Benetako zigorrik ez deino Israelek ez du jarreraz



Hizlari lanetan arituriko Pierre Stambul, judua eta antisionista.

"1969ko Olinpiar Jokoetatik Hegoafrika kanporatu zuten, boikotak bultzaturik. Parisen ditugu Jokoak aurten, zer egin badakizue: boikota sustatu"



aldatuko; baina historiak erakusten digu benetako zigorrak izanez gero Israelek atzera egiten duela". Zer egin beharko litzateke? Armen bidalketa bukatu.

Inguruko estatu arabiarren presioan ere ez du sinesten: ez dituzte inoiz sostengatu palestinarrik -kasu, gobernuetz ari da, ez herritarrez-. Ez ziren mugitu 1948an eta Jordaniak gerra abiatu bazuen ere, hain zuzen, izan zen sionistekin adosturiko Palestinaren banaketari buruzko hitzarmena ez zelako errespetatu. 1970-1971 urteetako Irail Beltza ere gogoan du, zeinetan Israelen armak esku artean milaka palestinar hil zituen Jordaniak. Egiptok ere postura bera duela dio: "Egipto, adiskide-herri bat izan ezik, beste guztia da Palestinarentzat". Gazaren blokeoan parte hartzen duela nabarmentzea inportantea zaio.

Azkenik, Hamas eta Israelen arteko negoziaketetatik ere gauza gutxi daukagu lortzeko, bere ustez: "Bahituen askatasunaren alde kalean direnek partidua galdu dute. Netanyahu badaki su-ete-

na onartuz gero erortzen dela, beraz, Trumpen garaipena arte iraunarazi nahi du kontua. Ez dut uste gauzak aldatuko direnik... edo bai, agian armen tak gelditzeko mehatxua eginez gero AEBek, eta kasu horretan Netanyahu eroriko litzateke. Bizkitartean, hilotzen gainean bideraturiko negoziazioek ez dute ezertarako balio".

Gaurko egunean, su-etena lortzea da premiazkoena, eta ondotik hitz egingo da aterabide politikoaz. Bere iritzia dauka Stambulek: bi estatuen soluzioa ez da bidea -"Osloko Hitzarmena aipatu dizuet. Ezinezkoa izateaz gain, ez da desiragarria. Bereizketaren teoria da sionismoa eta bereizketak kolonialismora, faxismora eta arrazakeriara garamatza. Bereizketa mantenduz gero, faxismoa mantenduko genuke". Estatu bakarra? Utopikoa bihurturiko aterabidea dela dio.

Horiek horrela, nazioarteko zuzenbidearen errespetua aldarrikatzen du Frantziako Bakearen Aldeko Juduen Batasunak: kolonizazioaren eta okupazioaren bukaera, presoan askapena, harresiaren desegitea, Gazako blokeoaren bukaera, eskubideen berdintasuna, errefuxiatuen itzulera eta gerra krimenen erantzuleen epaiketa. Tamalez, Frantziako Bakearen Aldeko Juduen Batasuna ez da Frantziako Estatuan dagoen juduen egitura indartsuena eta eragin guti du gobernuarengan. Baina berri ona: urriaren 7az geroztik bikoiztu da elkarteko kide kopurua. Harrotasunez baino gehiago, itxaropen iturri daukako zehaztu zien datu hori entzuleei. ●



“Eskolan ortu xume bat lantzeak testuingurua ematen digu planetan ditugun arazoez aritzeko”

Gasteizko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako baratzeak ikertu ditu Iratz Pou EHUko ikasleak. Zenbat eskolek dute ortua? Nolako erabilera ematen diote, zein helburu eta asmorekin? Probetxu pedagogiko eta didaktikoa ateratzen al diote baratzeari? Pouekin eta Igone Palacios ikerketaren zuzendari eta EHUko irakaslearekin aritu gara: “Irakasle gisa baratzean gure burua ziur ikusteko, ereduak behar ditugu”.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Ikerketak, lehenik, eskola-ortuen presentzia aztertu du: ikerturiko ikastetxeen %82k du baratze proiektua eta %18k ez du orturik. Nola baloratzen duzue? Nolako baratzeak dira aurkitu dituzuenak?

Igone Palacios: Oso emaitza positiboak dira, lagina potentia delako, bai kuantitatiboki (Haur eta Lehen Hezkuntzako Gasteizko 22 ikastetxe aztertu dira, Gasteizko HH-LH ikastetxeen %40), bai kualitatiboki (ez gara joan baratzea zutela genekienetara, ikastetxe publiko eta itunpekoak hartu dira kontuan ikerketan, Gasteizko auzo ezberdinetakoak). Baratzeen presentzia handia da ikastetxeetan, eta beraz, eskola gehienek aukera dute naturareki-

ko harremana eta horri loturiko proiektuak egunerokoan sustatzeko eskolan bertan. Eskola-baratzeak irakaskuntza testuinguru paregabea dira, bihurtu ditzakegu beste ikasgela bat, gai eta arlo ugari modu praktikoan jorratzeko.

Iratz Pou: Gure biziraupenerako oso oinarrizko tokia da baratzea, elikagaiak lortzeko egokia, eta baratzeek halako presentzia handia izateak erakusten du ikastetxeek aurrerapausoa eman dutela ikaskuntza prozesuan naturarekiko harremana, ezagutza eta hainbat jarrerara txertatzeko garaian. Aurkitu ditugun baratzeak ezberdinak dira eskola batetik bestera, baina orokorrean ongi antolatutako eta hornitutako ortuak ikusi ditut.

Eskola-ortuen erabilera ere aztertu duzue.

Pou: Orokorrean, erabilera ona egiten dute ikastetxeek, nahiz eta hainbat eskolatan ez duten guztiz barneratuta baratzearen erabilera. Kudeaketa da gakoa: ikastetxe batzuetan baratzeara ez dute eskolaren bide-orrian sartua, ekintza gehigarria da, eta beste hainbatetan aldiz, baratzeara curriculumean txertatuta dago eta ekintza didaktiko ugari dituzte bideratuta bertan. Halakoetan, errazagoa da ikasgai ezberdinetako irakasleek baratzeara jotzea beren alorreko gaiak jorratzeko.

Palacios: Bereziki baikorra da aurkitu izana eskola eta irakasle asko oso aktiboki inplikatzeko ari direnak eta dagoeneko esperientzia positiboak jasotzen dabilzanak. Izan ere, posible dela kontatzea oso beharrezkoa da, baratzegintzan aditu izan gabe gauza asko egin daitezkeela erakustea, bai eskola barruan praktika orokortua bihurtzeko (ez pare bat irakasleren ardura), bai ahalik eta eskola gehienetara zabaltzeko. Batzuen buruan, ezinezkoa da 25 hurrekin ortura joatea, baina bai, posible da, nahiz eta erraza ez izan, eta beste irakasleren baten laguntzaz joateko aukera izanez gero, are aberasgarriagoa da. Eskola asko jardun honetan ari direla partekatu eta zabalteak laguntzen du beste batzuk ere animatu daitezen bide hori urratzera, guk ere eredu bidez ikasten dugulako, eta irakasle gisa baratzeari gure burua ziur ikusteko, ereduak behar ditugu.

Zehazki, zer landu nahi dute eskolek baratzearen bidez eta zer landu daitezke?

Pou: Ni herri batean bizi naiz, naturarekin harremanetan, baina Gasteiz moduko hiri batean, sarri umeez ez dute lurrarekin eta naturarekin harremana sendotzeko halako aukerarik, edo jaten dituzten elikagaiak nondik datozen ezagutzeko, eta hori guztia lehen eskutik eskolan ikusteko eta lantzeko parada izatea ederra da. Horregatik, baratzeari bertan aritza ikasketa handia da, baina beste arlo batzuk jorratzeko ere balio du, batez ere etapa batzuetatik aurrera, kontuan hartuta irakasle eta ikasgai asko dagoela. Eskolek ere, bi ideia nagusi horiek buruan jarri ohi dute martxan baratzeari egitasmoa, baina errealtatean maiz zaila egiten zaie. Ingurune hezkuntza ortuan lantzeak kontzeptu sinplea dirudien arren, atzetik duen lanketa sakona da.

Palacios: Gure ongizaterako, biziraupenerako, beharrezkoa dugu natura, baina



Pantailan, Irtatz Pou; alboan, Igone Palacios. Unai Coronel eta Daniel Zuazagoitia ere ari dira uneotan ikerketaren emaitzak lantzen. "Batzuen buruan, ezinezkoa da 25 hurrekin ortura joatea, baina bai, posible da, eta aditu izan gabe gauza asko egin daitezke".

"Baratzeari aritza ikasketa handia da: Gasteiz moduko hiri batean, umeez sarri ez dute aukerarik jaten dituzten elikagaiak nondik datozen ezagutzeko ere"

Irtatz Pou

"Ortuek aukera ematen dute auzolanerako, belaunaldien arteko solasaldiak josteko, hiriak eta nekazalguneak lotzeko, elikadura burujabetzaz gogoetatzeko"

Igone Palacios

lotura horiek ikustea zaila egiten zaigu hirian, eta baratzeari laguntzen du lotura hori berreskuratzen. Ikerketek diote hirietan, naturarekiko kontaktua sustatzeko gutxi eginda ere, lotura hori indartu egiten dela, egiten dugunaren kausa-efektuez jabetzen laguntzen duela, gaur

egungo sisteman oso deslotuta baitaude.

Are gehiago, ortuek aukera ematen dute auzolanerako, harremanetarako, belaunaldien arteko solasaldiak josteko, hiriak eta nekazalguneak lotzeko, elikadura burujabetzaren inguruan gogoetatzeko (gutxienez sinbolikoki, jaten dugun gehiena ez baita ortu horretakoa izango. Ortu xume bat lantzeak testuingurua ematen digu planetan ditugun arazoez aritzeko.

Behin oinarri hori izanda, eskola bat garenez, zergatik ez harago joan eta bigarren buelta bat eman, zergatik ez baliatu ortua matematikak irakasteko (konposata pisatzetik hasi eta horri tiraka, matematikak eguneroko bizitzara ekarrita), hizkuntzak lantzeko (zenbat hitz daude uraza esateko?), marrazketa egiteko... Ikasi behar duzunari testuingurua emanez gero, abstraktutik konkretura jaitsi eta zentzua eta zergati bat emanez gero, ikasketa eta ulermena errazten da. Gainera, lau hormetatik atera eta ikasgai kanpo-espazioan emateak berak arnasa ematen du eta ikasleak motibatzen ditu. Esaterako, Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako trantsizioa egiteko baliatu dezakegu, badirudielako Haur Hezkuntzan mugimendua oso inportantea dela baina Lehen Hezkuntzan gelan eserita baino ezin dugula egon. Espazioak berrisignifikatzea inportantea da, kanpo-espazioei bestelako esanahia ematea eta irakaskuntza espazio gisa ere erabiltzea.



ERREKABARRI IKASTETXEA

“Ikasgela baratzera ateratzeko erronka dugu irakasleok, oraindik oso gela gara”

Errekabarri da azterturiko ikastetxeetako bat. Haur eta Lehen Hezkuntzako 697 ikasle ditu eta talde guztiak pasatzen dira baratzetik, 2 urteetatik 12ra arte. “Txikitatik hasten gara: etorri, usaindu, landatzen hasi...”, kontatu digu Patxi Ibarzabal irakasleak. Astero lan bat dute baratzeari lotua eta eskola osoari egiten diote ekarpena, katean: adibidez, talde batek orain lurrari emango dio buelta, eta horri esker beste talde batek maiztzean landatu ahal izango du, eta hurrengo talde batek jaso egingo du ereindakoa. Eta hala, ziklo osoa egiten dute. Hiru zeregin nagusitan dute banatuta baratzegintza, eta eskola guztia pasatzen da hirueztatik: erein edo landatze lana, mantentze lana, eta urmaela. “Hortik aurrera, libre da nahi denean baratzera gerturatzea, eta ni baratzean nagoelarik, jolastorduan beti hurbiltzen dira baten batzuk, galdeztzen didate ea laguntzarik behar dudan, zertan ari naizen, zerbait egin dezaket... Izugarria da zein erakargarria den



Ikastetxean urmaela jarri zuen Gasteizko lehen eskola izan zen Errekabarri.

haurrentzat. Horregatik, nahiz eta darماغun erritmoan kostatzen zaigun ikasgelatik ateratzea, umei galdetuz gero beti nahi dute baratzera etorri, eta hori baliatu beharko genuke”.

Bai maiztasuna bai edukia ongi sistematizatzea eta antolatzea funtsezkoa da, baratzeari eskolako proiektuaren parte den heinean: “Ezin du izan nire harrakada, ezin du irakasle batzuen sentsibilitatearen baitan egon, oinarritzakoa da kolektibizatzea, sarea sortzea eta eskolako proiektu bihurtzea, iraungo badu eta benetan

baratzeari egiten dena esan-guratsua izatea nahi badugu, eta ez postal hutsa –azaldu du Ibarzabalek–. Klaustroa sarri ez da seguru sentitzen, ez dugulako mundu hau kontrolatzen eta baratzeari perfektua behar dugula iruditzen zaigulako, baina hemendik ez goaz azokara, landare batzuk usteldu badira ez da ezer gertatzen, ikaskuntza prozesuaren parte da. Ausardia eta baliabideak behar dira”.

Irakaslearen hitzetan, harrigarria da zeinen deskonektatuta gauden naturatik eta baratzetik: “Haurrek ez dakite porru bat bereizten. Fruituak bai ezagutzen dituzte, baina landareak, barazkiak ez; dena supermerkatuan erosteak hori dakar”. Ortuaren bidez, natura eta bere zikloei, jasangarritasunari eta biodibertsitateari erreparatzea bilatzen dute batetik, eta ikasgaia gelatik espazio honetara ateratzea bestetik, diziplina ugaritako proiektuak bertaratzeari helburu didaktiko batekin. “Erronka nagusia hor dugu irakasleok, oraindik ere oso gela baikara”. ●



ZABALGANA IKASTETXEA

“Uztarik ez izatea arazotzat dugu, baina aukera bat da gertatu dena haurrekin lantzeko”

Zabalgana da azterturiko beste eskoletako bat, eta honek ere urmaela du, baratzearen ondoan. 700 ikasle inguru ditu, denak pasatzen dira ortutik, eta familiekin lankidetzan daramate baratzea. Deigarria da, 550 litro inguruko bost konpostontzi dituzte, eta hartzen dituzten hondakin organiko kopuruak itzelak dira (ikasle eta irakasleen otorduak kontuan hartuta). Baliatzen dute ikasleekin hondakin berrerabilera ikusteko edota zizareek konposta nola egiten duten aztertzeko.

Urtero egiten da baratzearen plangintza, guraso eta tutoreen artean, eta urtero txandakatzen dituzte landaturiko produktuak: “Demagun ikasturte honetan tomateak landatzea erabakitzen dugula, gero tomateak jasotzean tomate marmelada egitea adostu dezakegu, edo tomatea olioarekin dastatu, landaturiko tomate eta patatekin entsalada bat egin... –azaldu digu Ibon Diaz irakasleak– eta konposta erabilita zikloa osatuko dugu, prozesu guztia



Zabalganako bost konpost-ontziek hondakin organiko kopuru itzelak jasotzen dituzte.

ikustea eta barneratzea baita helburua”. Sendabelarrak ere badituzte.

“2 urte dituztenetik hasten dira lurra nahasten, esperimintatzen, landaketa txikiak egiten... eta naturaltasunez bizi dute. Aurreiritzi asko gaineratik kentzeko eta ezagutza handitzeko baliabide ederri da baratzea. Adinean gora, jakintza handitu ahala, gauza gehiago landu daitezke: Arabako patatak fama du, bai, baina nondik dator patata? Eta artoa,

tomatea? Ilargiaren faseek nola eragiten dute landaketan? Gelan Erdi Aroa ikasten ari bagara, feudalismo garaian zeinzentzat zen uzta zati handiena? Beste lurralde batzuetan jaio diren ikasleek zein fruitu eta barazki jaten dituzte? Esaterako, Magrebetik ekarritako piperrak landatzen saiatu ginen, baina ez ziren atera”. Gelatik ateratzea den guztia motibagarria da ikasleentzat, dio.

Baratze ekologikoa da Zabalganako. Joan den uda oso lehorra izan zenez eta eguzkiak bete-betean jotzen duenez ortuan, apenas lortu zuten uztarik: “Ez tomaterik, ez fruiturik, patatak eskas... eta haurrekin landu behar izan genuen zer pasatu zen, klimaz hitz egiteko parada ere izan genuen. Frustratzea normala da, guri geuri ere kostatzen zaigu emaitza onartzea, eta uztarik ez bada arazotzat hartzen dugu, baina berez aukera da planifikatutik desbideratu eta gertatu dena haurrekin lantzeko. Irakasleok ere eskema batzuk apurtu beharko genituzke”. ●

Irakasleen ziurtasun falta aipatu duzue lehen. Irakasleek formazio gehiago jasoz gero, etekin handiagoa aterako litzateke ortuei?

Pou: Ikerketan antzeman dut formazioa jaso duten irakasleengan eragin zuzena izan duela baratzearekiko duten ikuspuntuan, ikusi dutela beren ikasgaietan baratzea didaktikoki baliatu dezaketela. Prestakuntza hori ez da modu orokortuan ematen eskolan, eta ondorioz sarri irakasle eta guraso jakin batzuen gainean geratzen da baratzearen ardura, ez dute irakasle guztiak parte hartzen.

Palacios: EHUn formakuntza ematen diegu irakasleei, baratzean nola irakatsi, eta saio hauek harrera oso ona dute, beharra ere halakoxea da, nahiz eta oso zaila den irakasleekin formakuntza egitea, haiei bideratutako formakuntza saio asko dagoelako eta denbora gutxi (saioa eskola-orduetan bada adibidez, zaila izan ohi dute etortzea). Lehenengo pausoa da irakasle inplikatuena etortzea ikastaro hauetara, eta gero eskolan zabaldu dezatela gainerako artean. Laster, *Matematika baratzean, matematika baratzearekin* ikastaroa dugu apirilaren 17an, eta *Ezagutu zure eskolako biodibertsitatea* maiatzaren 15-16an.

Etorkizuneko irakasleek, dena den, izango dute dagoeneko prestakuntza hori, Magisteritza karreraren ematen den heinean?

Pou: Magisteritza karreraren, Natur Zientzia ikasgaiaren baratzera joan ahal izan dugu irakasleok, eta beste irakasleren batekin ere, matematikakoarekin adibidez, campuseko baratzera jaitsi gara, proiektu bat egitera eta horren bueltako formakuntza jasotzera.

Palacios: Bai, lehen egiten ez ziren gauza asko egiten ditugu. Natur Zientzietako ordu batzuetan baratzera goaz, eta esperientzia hori hor geratzen zaie, irakasle direnerako. Nahiz eta zehatz-mehatz ez gogoratu, dagoeneko egin duzuna errepikatzea errazagoa da, erreferentzia hori badute dagoeneko irakasle gaiak. Hain juxtu, gurekin ikasi duten Haur eta Lehen Hezkuntza graduetakoa irakasleak ezagutzen ditugu, orain halako lanketak egiten ari direnak beren eskoletan. Gure muga da Natur Zientzietako ikasgaiak dituen orduak dituela Magisteritzan.

Eskola-ortuen erabileran, zein hutsune nagusi antzeman dituzue?

Pou: Lehen aipatu moduan, hainbatetan

“Eskola gehienetan, bertan landatutako elikagaiak gero irakasleek eurek kontsumitzen dituzte, eta hainbat plater prestatzen dituzte ikastetxean”

Iratz Pou

irakasle zehatz batzuen ardura bihurtzen dela baratzea, eta horrek baratzearen erabilera mugatzen du.

Palacios: Aurrekoan ikastetxe bateko Baratze Batzordeko kideekin egon ginen, eta aipatu ziguten aitortza handiagoa behar dutela, irakastordu liberazio gehiago, besteak beste formakuntza jasotzeko edota curriculumaren baratzeari lotuta nola landu egokitzeko. Berez, orain BeAtarrak baino ez ditu halako lanketara bideratutako irakastorduak [ikastetxe bakoitzean berrikuntzaz arduratzen den irakaslea da BeAtarra]. Niretzat, inportanteena da baratzeari benetan duen balioa ematea, baratzera joaten garen aldiro ikasketa prozesu esanguratsu bat lortzea, eta horretarako ongi antolatuta behar da zer egin bertan, ziur sentitu behar dugu, eta egiten dugun horri garrantzia eman behar zaio (bideratutako langile kopuruan, denboran, ratioetan).

Zein esperientzia interesgarri aurkitu dituzue, ikerturiko ikastetxeetan?

Pou: Eskola gehienetan, bertan landatutako elikagaiak gero irakasleek eurek kontsumitzen dituzte, eta hainbat plater prestatzen dituzte ikastetxean. Horrek ilusioa pizten du haurrengan. Sortutako hondakin organikoekin konpostaren bueltan eskola batzuek egiten duten lanketa ere interesgarria iruditu zait. Eta baratzetik gertu urmaela dutenen

kasuan, aberastu egiten da proiektua, biodibertsitatearen behaketan, neurketan, zaintzan: bai baratzeak bai urmaelak izandako eboluzioa neurtzen dute, gero hainbat irakurketa egiteko.

Zein litzateke, zuen ustez, baratzearen erabilera onena?

Palacios: Elkarrizketan zehar aipatzen joan garenaz gain, onena litzateke maila guztietako irakasleei baratzea erabiltzeko aukera ematea eta talde bakoitzarekin hileroko lau saio edo gehiago dedikatzea. Dena den, eskolaren arabera (eta eskolak dituen baliabide eta baldintzen arabera) ezberdina izan daiteke erabilera on bat, eta bide horretan laguntzen eta ideiak ematen saiatzen gara. Zer da baratzearen erabilera on bat egiteko behar duzuna? Protokolo batek lagunduko lizuke? Baliabide jakin batek? Ikerketak horretarako bide ere eman digu, zer behar dauden ikusi eta non esku hartu behar den aztertzeko.

Baratzetik harago, ikastetxeetako patioetan berdegune gehiago sartzeko ekimenak ugaritzen ari dira, baso-eskolak ere bai. Ingurumena, natura, elikadura burujabetza... Kontzientzia handitzen ari al da halako gaien inguruan?

Pou: Eskoletan espazio berdeak berrezartzeko joera nabarmena da azken urteotan, zenbat jolastoki moldatu eta bernalizatu dituzten ikustea besterik ez dago. Azken finean, naturari gizakiok kendu diogun lekua berriro ere pixkanaka itzultzeko joera orokortu da. Eta baratzea izan edo ez, kontzientzia hori garatzeko ekintzak egiten ari dira eskolak.

Palacios: Espazio berde hauen eragina handia da, gainera. Badugu beste ikerketa bat egina, konparatzen dituen kanpo-espazio berdeak erabili dituzten bi ikastetxe: bata hiriko ikastetxea (Gasteizkoa), eta bestea herri batekoa. Bada, abiapuntuan herriko eskolako irakasleek ezagutza eta lotura maila handiagoa zuten naturarekiko, baina lanketa egin ostean pareko emaitzak lortu zituzten irakasle batzuek eta besteek, eta hainbat eremutan emaitza altuagoa lortu zuten hiriko irakasleek. Gehiago sakondu behar litzateke, baina pista bat ematen digu: umeak (pertsonak, orokorrean) naturarekin harremanetan jarri eta galderak eginda, erraza da naturarekiko grina, interesa eta lotura indartzea. ●

Daniela Cano

“Literatura izan da tristezia ulertzen lagundu didana”

Erantzunik gabeko galderaz inguratuta eta “tristezia sakona” sentituz bizi izan da Daniela Cano. Artista kolonbiarra da, eta pandemia betean Madrilera ihes egin behar izan zuen Kolonbian mehatxatuta zegoelako. Arteaz, bereziki literaturaz baliatzen da erantzunik lortzeko eta tristezia ulertzen saiatzeko: “Ezin da tristura medikalizatu, tristura oso konplexua da eta zergatik eta nondik datorren ulertzen saiatu behar dugu”.

 OLAIA L. GARAIALDE  DANIELA CANOK UTZIAK



Kolonbiako Alcalá herriko familia pobre batekoa da Daniela Cano artista eta aktibista. Artera hurbiltzeko baliabide ekonomiko gutxi izan dituen arren, literatura izan da bere babesleku eta gotorlekua: “Ez genuenez dirurik, zabortegei batean jolasten genuen, eta izugarri ongi pasatzen genuen. Bertan aurkitu nuen nire lehenengo liburua, eta orduan jakin nuen literatura izanena zela nire bidea”. Emakume transa da, eta haurtzaroan “oso zoriontsua” zen arren, ez zuen baliabiderik ez informaziorik bere identitate ulertzeko: “Zalantza asko nituen, liburuetan bilatzen nituen familiak ez zituen erantzunik”. Horrek guztiak “tristezia sakona” eragin zion: “Gaur egun depresioa deitzen diote, baina niretzako beti tristezia sakona izanena da”.

Literaturen bidez 1927ko belaunaldiko idazleak ezagutu zituen, eta belaunaldi horren parte izan nahi zuen: “Argi nuen 27 urte bete baino lehen hil egingo nintzela, eta laster izan behar nuela obra bat amaituta. Orduan ez nekien oraindik

“Artea eta kultura gizartea kontrolatzeko erabiltzen dira, eta soilik dirua eta boterea dutenek eskuratzen dituzte artea eta ezagutza”

asko nuela kontatzeko”. 13 urterekin bere buruaz beste egiten saiatu zen: “Heriotzarekiko maitasun ikaragarria nuen, eta ezin nien tristeziari eta poeten istorioei ihes egin”.

Pertsona batek bere buruaz beste nola egiten zuen ikusi zuen Canok: “Ezin nuen suizidioa bururik kendu. Nobela bat idatzi nuen, eta nobela horretako pertsonaia batek bere buruaz beste egiten zuen, nik neure buruaz beste egiten nahi nuen moduan. Pertsonaia hil zenean askatzea lortu nuen”.

Suizidio saiakeraren ostean izan zuen lehenengo harremana psikiatriarekin:

“Egia esan, psikologoek eta psikiatreek ez ninduten asko lagundu, literaturak bai”. Orokorrean psikiatrian botika gehiegi emateko joera dagoela uste du: “Ezin da tristura medikalizatu; tristura oso konplexua da, eta zergatik eta nondik datorren ulertzen saiatu behar dugu. Hala ere, oso zaila da”. Botikek sormena eteten diotenez, botikak hartu ordez nahiago du sortu: “Literatura izan da tristezia ulertzen lagundu didana”.

ARTIBISMOA, GIZARTEA ERALDATZEKO TRESNA

Literatura ez ezik, beste arte diziplina batzuk lantzen ditu; tartean, dramaturgia. La cortina roja konpainia sortu zuen Kolonbian: “Ez zegoen beste LGTBIQ+ konpainiarik”. Horren bidez, “aurrez aurreko” aktibismoa egiten zuen Kolonbian: “Artea eta kultura gizartea kontrolatzeko erabiltzen dira, eta soilik dirua eta boterea dutenek eskuratzen dituzte artea eta ezagutza”.

Artea “oso beligerantea” eta haserreak eta nahigabeak eragindakoa zela azaldu



du. Kalean poema batzuk banatzen ari zelarik ikusi zuen bere artea “gatazkatsua” eta “arriskutsua” zela. Horieta-ko poema batean, Olerkiekin polizia hil jartzen zuen: “Astebetez ziegan sartu ninduten, bortxatu eta denetarik egin zidaten”. Poliziaren jarrera gizartea kontrolatzeko tresna dela dio: “Hezkuntzaren bidez jendearen pentsamendua zabaltzen da, eta horrek aldaketak eragiten ditu, baina ez dute hori nahi”.

MEHATXATUTA

Hamabost urtez egon zen martxan La cortina roja konpainia, eta zazpi obra sortu zituen: “Erresistentzia handia zegoen, batez ere akademikoen partetik, baina produktua ona eta egonkorra zen, eta publikoak niregan sinesten zuen”. Urteekin gero eta zailagoa egiten zitzaien konpainiarekin lan egitea, askorentzat “deserosoa” zelako bere lana: “Leku batzuetan ezin nuen aurkeztu, antzokiak mehatxatzen zituztelako; behin, kamioi batean platano artean ezkutatu atera behar izan nuen antzokitik”.

Gau batean, paramilitarrak etxera sartu eta bera eta bikotekidea mehatxatu zituzten: “Lurraren kontra jarri eta hogeita lau ordutan desagertzen ez baginen burua moztu eta hil egingo gintuztela esan

zituzten”. Maleta eta txakurrak hartu, eta hurrengo goizean ihes egin zuten: “Gau horretan dena galdu genuen”. Salaketa jarri eta hedabideetara deitu zuten gertatutakoa kontatzeko: “Hamar milioi peso eskatzen zituzten nire buruarengatik, eta egunero lagun bat hiltzen zuten”.

Handik lau egunera, Bogotako jaialdi alternatibora joan ziren ikuskizun bat egin eta dirua lortzeko. Bertan lortutako diruarekin gela bat lortu zuten hilabete baterako. Casa Ensableko –Gaur egun Casa E Borrero– arduradunak Kolonbiatik ihes egin behar zuela esan zion, eta bere lokalean ikuskizunak egiteko aukera eskaini zion: “Hiru hilabete egon nintzen, eta ihes egin nuen”.

Mehatxuak hasi baino lehen nobela bat bidali zuen Madrilgo lehiaketa batera, eta hautatu egin zuten, Madrilerara egin zuten ihes: “Hasiera oso gogorra izan zen, ez neukan deus eta nire buruaz beste egiten saiatu nintzen berriz”. Sistema psikiatrikoan sartu zen berriro ere: “Hasieran ez zidaten idazten uzten, eta hori zen mina eta tristura arintzen laguntzen zidan gauza bakarra”. Madrilerara iristea “gogorra” izan bazen ere, Madril berriz jaio dela sentitzen du: “Minetik idazteaz aparte, inspiraziotik ere sortu nahi dut”. ●



GORPUTZEKO ATAL BAT?

“Gorputzeko atalik ederrena begiak dira, horien bidez nire arima bere horretan ikusi daitekeelako”.

ETXEKO MARTXAZ



JOSEBE BLANCO

Lehen erditze hura urruti geldituko litzateke, urtatsean Primi despistatu izan ez balitz, eta jaio zen lehen urruxa hura maiteko balu. Harrezkero, makina bat aldiz bete dugu biberioa beharrean dauden arkumeei emateko; tartean, Primiren urruxari.

Konturatu orduko, buelta batzuk egin ditugu hiltegrira; jertzaldi batzuk pasa ditugu eta aspaldian hasi ginen gazta egiten. Edozein kasutan, ez nahiko. Oraindik badaude -eta egongo dira- hiltegrira joateko motiboak. San Joan arte, egunero-egunero bitan jetzi behar, eta gero, San Ferminak bitartean, egunean behin segitu beharko dugu. Gazta-ganbaran lau dorrek baino ez dute apopiloren bat edo beste, eta komunitatea handitu behar dugu, bai ala bai.

Beraz, nahiko lan ortzi-mugan, eta tarte gutxi gora begira egoteko -ez bada euririk dakarren edo begiratzeko-. Hori da gure bizimodua sasoi honetan, eta tren asko pasatzen zaizkigu muturren aurrean konturatu orduko. Errigorako eskaera egiteko epea. Wwoof sareko posta elektronikoak. Bi-



EHKOlektiboaren urteko batzarra.

lera deialdiak. Telegram mezuak. Galdutako deiak. Zaila da nasara garaiak heltzea.

Garai honetan, behin baino gehiagotan tokatzen da barkamena eskatzea. Batzuetan, enegarren mezua heltzen denean, hamaikagarrena pantailaren behealdean desagertuta dagoela. Noiz galdu ziren zulo beltzean?

Agurra zurrunbilo horretan geundela heldu zen, hilaren hasieran. Laudion, Faktorian. Astebete baino gehiago pasako zen komunean geneuzkan telegram taldeetatik ateratzerako. Azken sei urteotako mezuak segundo gutxiren buruan desagertu ziren. Ez, ordea, mezu horien hitzetan dauden pertsonak. Ametsak. Kezkak. Betebeharrak. Pozak. Konpromisoak. Lana. Kolektibotasuna.

Inoiz egokitu bazaizu elkarte bateko funtzionamenduan inplikatzeko, bada-kizu zertaz ari naizen, irakurle. Zer toki hartzen duen norberaren gogoan eta etxekeoen egunerokotasunean. Batek hartuko du parte bileretan, baina etxe oso bat ari da lanean, hartutako ardurak ahalik eta txukunen betetzeko.

Ezusteko batek. Egoera berri batek. Auskalo zerk, une jakin batean, abisua ematen dizu: hau amaieraren hasiera da. Eta momentu horretan bertan bada-kizu harrak bere lekua egingo duela zure baitan eta hazten den neurri berean gerturatzen ari dela garai horren bukaera. Garai berri baten hasiera.

Gorputza oraindik ez da egoera berriaz jabetu, burua askotan joaten da bilera haietara eta bihotzak laztantzen ditu orduko besarkadak. Etxeko martxak ez du tarterik uzten nostalgiarako, "orain eta hemen" dio temati. Eta zuk kasu egiten diozu, segi eta segi, lanean, urteotan konpartitu duzun ibilbideak emandako sendotasunaz.

EHKOlektiboko talde eragileko kide izateak arrasto sakona utzi du gudan. Orain garen hau ondu da urteotan, eta izango garenaren abiapuntua baino ez da. Dena gure aurretik izan zirenei esker. Orain lanean ari direnekin zorretan. Eta agroekologiaren bidean bidai-izango direnen esperantzan.

Etorkizunik bada, agroekologiaren eskutik etorriko da. ●

A ZE FAUNA!

ITZALTZEN ARI
ZAIGUN ARGIA

IÑAKI MEZQUITA ARANBURU
ARANZADIKO KIDEA

U rte batzuk ditugunok (nire kasuan, mordoska) sarritan entzun izan diegu gure guraso eta senitarteko helduenei garai bateko ikuskizun harrigarri baten berri. Ipuin batean gertatuko balitz bezala, larreak “argi txikiz” apaintzen zirela maiatza inguruko gau garbietan. Argi berdexka zela eta han-hemenka pizten omen zen, Naturaren kapritxo huts baten moduan. Ipurtagiak zioten, eta ez zitzaien arrazoirik falta, ipurtaldetik sortzen baitzaie argia kakalardo paregabe hauei.

Planetan 1.900-2.000 ipurtargi espezie inguru ezagutzen dira, eta kakalardoan artean Lampyridae Familiaren barnean kokatzen dira. Lurralde epel eta beroetan bizi dira, bertako klimatologia lagun.

Baina goazen intsektu honen argi harrigarri horren inguruan aritzera, me-rezi du-eta! Espezie gehienetako arrek eta emeek oso itxura desberdina dute, sexu-dimorfismo izenez ezagutzen den ezaugarriari erantzunez. Espezie batzuetako emeek ezin dute hegan egin eta gorputz eta itxura potoloaren ondorioz, larbak dirudite. Beraien argiaren jatorria kimikoa da eta izen susmagarria duen sustantzia batengan entzima batek eragiten duenean sortzen da. Sustantzia eta entzima hori luziferina eta luziferasa dira, hurrenez-hurren, eta konturatu-ko zineten susmoak nondik datozen... Argiaren sorrera prozesuari biolumineszentzia deitzen zaio eta luziferinaren oxidazioan oinarritzen da. Erreakzio kimiko hori oso azkar garatzen da eta berari esker argi misteriotsu hori ikus dezakegu. Intsektuaren sabel azpian,



IÑAKI MEZQUITA ARANBURU

azalaren azpian, sortzen den argi mota horri argi “hotza” deitzen zaio, ez duela berorik sortzen. Argia tarteka sortzen da eta distiren arteko tartearen luzera espeziaren arabera aldatzen da.

Zenbait espeziatako larbak ere bioluminiszentzia izateak sexuen arteko erakargarritasuna baino gehiago badela bistaratzen digu. Intsektuaren defentsa-sistema bat izan daiteke, argia bere jatorri “arriskutsuaren” iragarle funtzio modura erabiliaz. Larbak lurrazpian bizi dira, nahiz eta tarteka lurrazalera atera daitezkeen. Larbak haragijaleak dira eta bere harrapakinak (bareak, zizareak, eta abar) geldiarazteko sustantzia bat erabiltzen dute, sustantzia hori haien

gorputzean ziztada batez txertatuaz. Intsektu helduak direnean, berriz, belarjaleak dira eta badira heldutasunean elikatzen ez diren espezie batzuk. Ez dira heldutasunean elikatzen ez diren intsektu bakarrak, eta hori larba fasean metatzen duten energiari esker egin dezakete, zenbait sitsen antzera –Europa osoan dagoen sitsik handienak ere, *Saturnia pyri*, halaxe egiten du–.

Ipurtagiak, beste intsektu askoren artean, urritzen ari dira. Hori begi-bistakoa da eta arbasoen kontakizunak berri-ritu besterik ez dago hortaz jabetzeko. Arrazoiak asko izan daitezke, baina, badirudi, denen jatorrian gizakiok azaltzen gabela. Harrigarria, ezta? ●

IPURTARGIA

Coleoptera, Lampyridae

TALDEA: Ornogabea / Intsektua / Coleoptera.

NEURRIA: Espeziaren arabera, 5-25 mm artekoa.

NON BIZI DA? Eremu hezeetako larreetan.

ZER JATEN DU? Denetik, polifagoak dira.

BABES MAILA: Europa mailan ez dago babestuta.

ZUMARRA, HAZIAK ETA MOKOLODIA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Kattagorria maite al duzu? Eta txoriak? Karnaba agian; beharbada txorrua; deskuiduan mokozalea bazara mokolodia edo mokokera? Txoriekin txoratu xamar ibiltzen garela iruditzen zait maiz. Neurritz kanpoko balioa ez al diegu ematen? Hegan egiteko gai direla eta ez al gara bekaizkeriaz erretzen? Adi!

Lur sail bat itxuraldatu eta bestelakotzen dugunean, bai baratze-lorategi bat egiteko, bai soro, larre, sagasti, mahasti edo baso egiteko, egindakoaren egokitasun neurria txoriek ematen digute. Toki berritura txoriak eta hegaztiak berehala bueltatzen badira ondo egin dugu lana. Txoriak etorri badira, elikagai izango dituzten har, intsektu, belar, ale, fruitu, hazi eta abar badiren adierazle. Elkar jate kate luze baten erakusle ikusgarriak dira txoriak, beraiek ere jale. Janez lan ugari egiten dute: izurriteei tamainan eutsi, fruituak barreiatu, haziak erein, poza eta edertasuna zabalduz estresak uxatu, belar desegokien haziak janez haiek atzeratu... Txoriak are gehiago erakartzea izan daiteke hurrengo urratsa; landatu, adibidez, tagetea (*Tagetes patula*), ekilorea (*Helianthus annuus*), ekinazeak (*Echinacea spp.*), rudbekiak (*Rudbeckia spp.*), sedumak (*Hylotelephium spp.*) eta uraza edo letxuga (*Lactuca sativa*). Bai, letxuga, bai, eta denak jan beharrean ale batzuk tontortzen utzi, garatu daitezela eta zientoka hazi ekarriko dituzte eta txonta arruntek eta karnabak gustura asko eramango; garatu aurretik ere mokoka gozo egingo diote hosto berdeari ere; jarri ale batzuk han-hemen lore tartean, baratze bazterrean edonon haien mantentzeko.

Landare guztiek ez dituzte lagun hegalariak berdin maitatzen. Bada txoriak



Txori mokolodia.

ezkerreko begiarekin ikusten dituen landareri ere. Mesede nabarmenak dakartzate landare bakoitzarentzat bezala inguruarentzat, baina kexu denik ere bada. Madrilgo Mendi Ingeniaritzako Goi Mailako Eskolan egindako ikerketa polit bat argitaratu zen: "*Empty seeds are not always bad: Simultaneous effect of seed emptiness and masting on animal seed predation*", hau da, *Hazi hutsak ez dira beti txarrak: aldi bereko hazi hutsen eta hazien masifikazioaren eragina animalien hazi harrapatzean* (Perea, R.; Venturas, M.; Gil, L. *Plos One* aldizkarian, 8 alea, 2013). Zumarrak (*Ulmus spp.*) dira aktoreak. Ikerlariak topatu zuten zumarrak hazirik gabeko fruitu kopuru handia ekoizten duela. Gainera, fruitu antzu horiei beteei baino denbora lu-

zeagoz eusten die zuhaitzean. Estrategia horrek esan nahi du animalia hazijaleek, denbora eta energia gehiago behar dutela fruitu haziduna topatzeko. Zumarraren hazia haizeak eta urak hedatzeko prestatua dago, ez animaliek jan eta zabaldu dezaten. Janez gero txikitu eta deuseztatzen da. Eta nolaz hainbeste hazi sortzen barrenak xahutu? Bada ez, zenbakiak bere alde mintzo dira; neurtu zutenaren arabera, hazi onak baino antzuak %54 biomasa lehor gutxiagorekin eta nitrogenoa bezalako oinarritzko gaien aurrezpen handiarekin sortzen dituzte. Beretzako lan tzar hori energetikoki errentagarria da.

Uxa txori eta besteren kontura bizi diren horiek! Noiz ikusiko ote dugu Zumarizena duen bankua? ●

LOIOLAKO HIRI-BARATZE TERAPEUTIKOA, AUZOKO BEHARREI ERANTZUTEKO



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Cristinaenea fundazioaren eta Donostia Kulturaren arteko elkarlanetik sortu zen 2013an EtxEKOLanda proiektua, hiriko gune berdeetan baratze komunitarioak sortzeko ideia duena. Geroztik, hainbat eskoletan sortu eta kudeatu dituzte baratzeak, baina, oraingoan, egitasmo desberdina abiatu dute Loiolako Kultur Etxean, Agifes buru osasunerako eta +55 adinduen elkarteekin elkarlanean. Baratzegintza ekologikorako gunea da Kultur Etxeko patioan martxan jarri dutena, baina, lurra lantzeaz gain, kolektibo zaurgarriari auzora ateratzeko eta elkarlanean aritzeko aukera ematea da asmoa.

BANKALETAN AGROEKOLOGIA LANTZEN

Kultur Etxeak lursailik ez duenez, bankalak jarri dituzte atzeko patioan. “Oso patio aproposa da, eguzkiak ematen baitu, eta bankalen sistema bidez balkoi formatuko baratzegintza eginen dugu bertan”, dio Mateo Regla Dorronsoro Cristinaeneako teknikariak. Proiektu



CRISTINAENEA

integrala ari dira lantzen, hasiera hasieratik, elkarteko kideekin: “Baratzearen diseinua eta muntaketa haien beharretara egokitua izan da, eta haiek egin dute dena”. Behin baratzea prest izanda, ereintzari eta baratzeko funtzionamenduari buruzko tailerrak jasoko dituzte erabiltzaileek.

Oinarri agroekologikoen arabera ari dira lantzen baratzea, eta hasieran barazkiak jarriko badituzte ere, aurrerago bestelakoak gehitzea da asmoa: sendabelarrak, usaintsuak... “Guztira, hamar saio izanen ditugu ereinetak eta landa-

ketak egiteko, eta ideia ez da letxugak sartzea eta ateratzea soilik, baratzea erreminta pedagogiko eta terapeutiko gisa erabiltzea da helburua”, azaldu du teknikariak.

HEZITZAILEEK GIDATUTA

Bi edo hiru astean behin saio gidatuak izanen dituzte Loiolako hiri baratzean, baina taldeak dira egunerokoan baratzearen zainketa lanak egiten dituztenak. “Hezitzaileek saioak gidatzen dituzte eta astean zehar egin behar-

reko lanen jarraibideak ematen dizkiete”, azaldu du Reglak. Agifeseke talde bat egunero joaten da baratzera jarraipena egitera. Martxo hasieran izan zuten lehen saio gidatua, eta uztaiera arte, guztira, hamar saio egingen dituzte.

“Guretzat ere berria da proiektu hau, bagenuen ikastetxeekin esperientzia baina bestelako kolektiboetara hurbiltzeko gogoz ginen, eta harrera oso ona izan da. Azkenean, baratzea erreminta pedagogiko bezala lantzea da helburua, disziplinenteko lanketa egitea”, amaitu du teknikariak. ●

“Bio elikagaiak jatea funtsezkoa da osasuna mantentzeko eta berreskuratzeko

—
ELENA CORRALES
Biologoa eta nutrizioan aditua
OLATZ TXIPIA

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

UNIÓN EUROPEA
Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural

**ETORKIZUNA
EKOLOGIKOA DA
aurrera goaz!**



cpaen.org
navarraecologica.org

'HAUSNARREAN' LIBURUA



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Datozen hitzaldiak:

Apirilak 25 / Agurain

Maiatzak 16 / Zumaia, 18:30
Emakumeon* EtxeanMaiatzak 17 / Leitza, 18:00
LiburutegianMaiatzak 18 / Artea, 12:00
Herriko BentanMaiatzak 31 / Bilbo, 19:00
KarmelanJosebe Blancorekin aurkezpen
bat antolatzeko jo ezazu:
solasaldiak@argia.eusJosebe Blanco *Hausnarrean* liburuaren egilea udaberriko hitzaldiak eskaintzen hasia da.

Artzainarekin hausnarrean

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Hausnartzea modan dagoenaren irudipena dut. Zuk ez, irakurle? Gero zenbaterainoko sakonak diren hausnarketok beste kontu bat da. Baina "hausnarketa-fasean sartzearena" nahiko entzuna da azken aldian. "Etxebizitzaren egoeraren inguruko hausnarketa egin behar da", "etorkizuneko erronkak zehazteko hausnarketa-fase bat ireki behar dugu", "hizkuntzaren bidegurutzean norabidea markatzeko hausnarketa prozesua beharrezkoa da"... Eta ezker (edo ezkererago dagoena) hausnarketa prozesuetan murgilduta dabilen bitartean, eskuina zirti-zarta, abiadura handian, hango museo, hemengo eoliko eta beste *greenwashing*. Baina noan gaira, hausnarketa modan dagoen bitartean bizi osoa hausnarrean daramaten ardiekin solasean aritzen baita Josebe Blanco Alvarez artzaina eta bai baitu zer kontatua, bere bizipen eta hausnar-

ketetatik. *Hausnarrean* liburuaren bigarren argitaraldia du eta herriz herri hasia da hitzaldiak ematen.

Hitzaldietara gerturatzen den jendearen behar eta nahietara egokitzen da Josebe, "ez baita berdina hitzaldia agroekologia munduko talde batek antolatzea edo eragile feminista batek, adibidez", azaldu digu. Interesak ez dira berdinak eta azpimarratzeko ga-koak ere ez. "Bi ataletan banatzen dugu normalean solasaldia: liburuaz aritzen naiz lehen zatian, egituraz, helburuez... eta bigarren partea aprobetxatzen dugu mintzatzeko aipatu dizkiedan behar edo nahi horiez, bertaratutakoei interesatzen zaizkien puntuez; eta horretarako liburuko pasarte batzuk edo besteak erabiltzen ditut", esan digu. Antolatzailleekin aurretik gauza haue-taz hitz egitea gustatzen zaio, hitzaldia ez baita formatu bakarreko azalpen zu-rruna kasu honetan.

HIZKI PIZTI

**Ikas dezagun irakurtzen
eta idazten**



Zozketaren irabazleak

ARGIAko kideen artean, irakurtzen eta idazten ikasteko hiru *Hizki Pizti* jolas zozketatu ditugu. Hauek dira irabazleak:

Malentxo Arrospide Arrate
(Lizartza)

Itziar Madina Elgezabal
(Aldude)


Kepa Goitia Urkiaga
(Lekeitio)

DURANGOKO ESPERIENTZIA

Azoketan ohitutako emakumea da Josebe, gazta salmentan ibilia. Komunikatzeko kodeak ondo ezagutzen ditu. Durangoko Azokan, baina, liburu salmentan aritzea egokitu zaio 2023an eta hor, "nahiz eta ARGIAko talde osoak babestuta sentitu, lekuz kanpo bezala egon naiz; inpostorearen sindromea izan dut", kontatu digu barrez. "Gazta erostera edo dastatzera datorrenak zer eskatzen duen ondo ezagutzen dut, baina liburu bat erostera edo begiratzera datorrenarekin nola jokatu asmatzea ez zait erraza egin".

Kodeak kode, profil ezberdinetako pertsonengana heldu da *Hausnarrean* liburuarekin Josebe eta baserri mundua batere ezagutzen ez dutenei giro hori lehen aldiz ezagutzeko balio izan dienetatik hasi eta haur edo gaztaroko bizipe-nak berpizteko balio izan dien hainbat emakumerenganainoko abanikoa ireki du. ●

Yale: prestigioa esklaboen truke



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Killingworth (Connecticut, AEB), 1701. Collegiate School goi mailako ikasketa zentroa fundatu zuten. 1716an eskola berria New Havenera aldatu zuten eta handik bi urtera, 1718an, Yale izena hartu zuen gaur egun AEBetako eta munduko unibertsitate prestigio-dunetakoa denak.

Urte hartan Bostonen jaiotako Elihu Yale (1649-1721) negozio gizonak berderatzi merkantzia fardo eman zizkion dohaintzan unibertsitateari. 560 libra inguru lortu zituzten dohaintza salduta eta, horri esker, eraikin berri bat egitea lortu zuten. Horregatik jarri zioten unibertsitateari filantropoaren izena.

Hogei urtez Ekialdeko Indietako Britainiar Konpainiako kide izan zen Yale; geroz eta kargu garrantzitsuagoak lortu zituen, eta 1684tik aurrera Madraseko (India) gobernadore izan zen. Espekulazioaren bidez, Konpainiaren dirua bere onurarako erabili zuen, merkatariekin isilpeko kontratuak eginda. Finean, India harpilatzen dirutza izugarria bildu zuen. Konpainiaren kontrako jardunak zirela eta, kargutik bota zuten 1699an. Ingalaterrara joan zen orduan, eta bildutako ondasuna xahutzen hasi zen, tarteka prestigioa eta izen ona emango zioten dohaintzak eginez. Hala, Madrasen bere krudelkeria eta diru-gosegatik ezagun egin zena, "karitate handiko gizona" bihurtu zen hil ondoren.

Azken urteetan Yaleren ondasunaren jatorria aztertu dute hainbat ikerlarik. Eta Joseph Yannielli historialariak funtsezko



Egile ezezaguneko koadro honen erdian Elihu Yale ageri da, Yale unibertsitateari izena eman zion negozio gizona. Eskuinaldean, haur esklabo bat dago.

elementu bat gehitu die Yaleren diru-iturrirei: esklabotza. Yannielliren esanetan, Yalek ez zuen soilik esklabotza onartu, "Indiako Ozeanoko esklabo merkataritza zuzendu eta bultzatu zuen". 1680ko hamarkadan arau berezi bat jarri zuen indarrean: Indiako portuetatik ateratzen ziren europar ontziek gutxienez 10 esklabo eramane behar zituzten derrigorrez.

Yaleren lehen biografoek ez zuten esklabotzarekin zuen lotura aipatu ere egin. Baina Ekialdeko Indietako Britainiar Konpainiaren agiri eta akta guztiak digitalizatuta eta edozeinen eskura daude gaur egun, eta Yannielliren hitzetan, "orain ez dute aitzakiarik ezikusiarere-

na egiteko". Yannielli ez da gaia aztertu duen bakarra eta geroz eta gehiago dira unibertsitateak izena alda dezan eskatzen ari direnak.

Azken hiru urtetan David Blight historialaria buru duen Yale unibertsitateko lantalde batek ere lotura hori xehe aztertu du. Duela aste batzuk, *Yale and slavery: a history* izeneko liburu mardula aurkeztu du unibertsitateak, ikerlan hori jasoaz. Horrekin batera, Yale unibertsitateak barkamena eskatu du instituzioak esklabotzarekin izan zuen loturagatik. Baina barkamen ofizialean izena aldatzeko aukera ez da aipatu ere egiten. ●



MUSEO DELLE CIVILTÀ DE ROMA

Neolitoko piragua sofistikuak

1992. eta 2006. urteen artean, Erromako Bracciano lakuko uretan, Neolito goiztiarreko La Marmotta aztarnategia industu zuten. Berriki, *Plos One* aldizkarian han aurkitutako bost piraguen inguruko ikerlana argitaratu dute. Ontziak 7.000-7.500 urte inguru dituztela ondorioztatu dute. Ez dira inoiz aurkitutako ontzirik

zaharrenak, baina bai Mediterraneoan aurkitutako garai hartako bakarrak. Bost zuhaitz espezieetatik ateratako egurrez eginak daude piragua eta lehen nekazal komunitateek zeukatzen sofistikazio teknologikoaren adierazle dira. Mario Mineo ikerlariaren hitzetan, "benetako itsas ingeneritzaren emaitza dira". ●

“ ”

Literaturak irakurlearen irudimena pizten du, baita komunitatearena ere

Isaac Rosa Camacho

Idazle andaluziarra (Sevilla, 1974) Gasteizko Ipuin Literarioaren Nazioarteko Jaialdira etorri da martxoan. Gasteizko tren geltokian egin dugu harekin hitzordua, bere herrira bueltatzeko ekipajea prest zeukala, eta bidaiarien, zerbitzarien eta eguneroko martxaren zaraten artean, literaturak errealitatea azaltzeko ematen dituen aukerei buruz mintzatu gara harekin, besteak beste.

 CIRA CRESPO  DOS POR DOS / ARGIA CC BY SA

Atzoko ekitaldian, auzi edo mintzagai zentrala hauxe zenuten: Ipuinak vs. eleberriak, zein da genero nagusia. Zer defendatu edo erantzun zenuen zuk?

Bada erantzun nuen, nire ustez, ez direla genero konparagarriak, baina konparatu beharko bagenitu, literaturan bilatzen dudana guztia nik eleberrian aurkitzen dudala ipuinean baino intentsitate gehiagorekin, eta sakontasun eta hedadura handiagoarekin.

Uste dut eleberriak urrunago iristeko aukera ematen duela, oro har. Ipuinak eskaintzen du mundu posible batera modu iheskorrean hurbiltzeko aukera; eleberrietan, berriz, mundu oso bat garatzen da.

Literaturari esker, bizi garen bakar-kako itxialditik ateratzeko aukera izan dezakegu. Izan ere, irakurketak, nahiz eta irakurketa bakar-kako jarduna izan ohi den, aldi berean besteekin harremanetan jartzen zaitu, giza trama bat berreraikitzen baitu. Lehenik eta behin istorioarekin, eta pertsonaiekin, baita liburua irakurri duten beste irakurle batzuekin ere... Hau da, nolabaiteko komunitate bat sortzen da liburuekin. Literaturak irakurlearen irudimena pizten du, baita zure komunitatearen irudimena ere. Hori guztia ipuinean aurki daiteke, baina uste dut nobelak askoz ibilbide luzeagoa duela, konplexutasun handiagoa ematen diela kontatu dizkizudan aukera horiei guztiei, eta askoz ere urrunago iristen direla.

Eta badago ipuinetan aurki dezakegun zerbait, eleberrietan egongo ez dena?

Bai, jakina. Adibidez, eleberrietan irakurlea nekaraziko luketen forma narratiboak frogatzen ditzaitez. Ipuinak jolaserako eta esperimenezko aukera gehiago ematen dizu, eta irakurlearekin beste harreman bat izateko ere bai. Adibidez, niri gustatzen zaizkit gauza jakin bat irakurtzen ari zarela sinestarazi ondoren, amaierara iritsi ahala errelatoa irauli eta irakurri duzunaren esanahia aldarazten dizutenak. Baina hori nobela batean egitea, 300 orrialde irakurrarazi ondoren irakurlea hasierara itzularaztea, ez da hain jasangarria: ipuinean txundigarria dena, eleberrian irakurleari egindako tranpa efektista modukoa bihurtuko da. Gero, ipuinak kontzentrazio eta intentsitate oso poetikoa du, eleberriak ez duena, eleberriak askoz aire eta espazio gehiago behar izaten baititu... Inork ezin dio eutsi ipuin on batek izan dezakeen intentsitateari orrialde askoan, ze, gainera, ez baitu bat egiten bizitzaren intentsitatearekin.

Eta bada ezberdintasun materialik ipuin eta eleberriak egiteko (eta kontsumitzeko) orduan? Eleberriak egiteko diru eta denbora gehiago behar dela esan daiteke?



Ipuina bizi dugun garaiarekin bat da torrela pentsa genezake, bai idazterako orduan eta bai irakurtzerakoan. Denbora gutxi dugula esaten ari gara beti, kontzentrazio-arazoak ditugula, eta arreta hamaika kontutan sakabanututa izaten dugula. Horiek horrela, badirudi narratiba laburra, telesailleekin gertatzen den bezala, egokia goa izango litekeela irakurlearentzat... baina gero ez da egia, ipuin-irakurleak oso gutxi direlako.

Jendeak nobela bila jarraitzen du, eta nobela batetik nahi duzuna da denbora luzez zurekin gera dadila, ahalegina merezi izatea. Hor dago prezioa ere. Jendeak 20 euro ordaintzen ditu; beraz, liburuak irauin diezazula pixka batean. Gure alabak, adibidez, 15 urte ditu, irakurle porrokatua da eta 600 orrialdeko eleberriak nahi izaten ditu. Eta ez 600 orrialdeko eleberriak bakarrik, baizik eta 600 orrialdeko eleberri sagak.

“ ”

Eskritura politikoa da, literalki, idazkera bera politikoa denean

Tiza Roja (“Klera gorria”; Seix Barral, 2020) da zure ipuin bilduma bakarra, eta hasieratik esaten duzu ez zarela ipuin idazlea.

Eta begira, ipuin asko idatzi ditut, 120-130 inguru. Baina egia da, ez naiz ipuin idazlea; izan ere, nire etxea irakurgai eta noizbait idatzi ditzakedan eleberrietarako oharrez beteta daukat, baina ez ipuin oharrez. Errazagoa egiten zait nobela terminoetan pentsatzea.

Idatzi ditudan ipuin guztiak enkar-guz izan dira, egunkarietan publikatzeko nagusiki. Hala ere, egunkarietako ipuinen kasuan, saiatu izan naiz ohiko moldeetatik ateratzen, irakurlearen atsedean unea izan baino, pieza bat gehiago izan dadin. Hau da, egunkariak gaurkotasunari begiratzen dion moduan, ipuinak gauza bera egitea biltzen dut, baina literaturaren tresnak erabilia. Hori izan da ipuina niretzat askotan, eta gauzak, teknikak eta idazteko moduak probatzeko ere balio izan didate.

Horregatik daude, orduan, zure ipuinak errealitatearekin eta gaurkotasunarekin lotuta.

Prentsan idazten duzunean, bi bide daude: zerbait ezberdina duzu kontatzeko, edo kontatzeko beste modu bat eskaini behar duzu.

Galdera pertsonal bat, edo aholku eskaera bat... Saiakera idazten dut nik, eta arazo bat daukat: fikziozko zerbait egiten saiatzen naizenean, iruditzen zait maizegi bihurtzen dela literatura panfleto jasangaitza. Nola egin daiteke politikoki konprometitutako fikzioa, eta, aldi berean, balio literarioa duena?

Ez dakit inori aholkuak emateko egokiena naizen, panfleto moduan idazten dudala uste dutenak ere badira-eta... Baina esan dezagun niretzat modua dela garrantzitsuena, forma literarioa; ez idatziko dudana, ezta begirada non jarriko dudan ere, baizik eta nola kontatuko dudana.

Panfletoaren arriskuarekin baino gehiago, kontatua izateari uko egiten dioten errealitateko alderdi batzuekin egiten dut topo. Batzuetan, izan daiteke ez ditugulako ulertzen, edo horiei buruz pentsatzeko gai ez garelako, edo forma emateko gai ez garelako, gainezka egiten digulako... Beste batzuetan, kontatzeko modu desberdin bat aurkitzen ez dugulako izan daiteke, dagoeneko mila bider kontatu digutelako modu berean, eta beste era batean kontatzeko formarik ez dagoela sinetsi dugulako. Horiek kontatzeko beste modurik bilatzen ez baduzu, irakurlea, azkenean, zuk kontatzen diozunera egokitzen da, eta ez zaio deseroso egiten, ez da asaldatzen eta ezin zaio ikusarazi gatazkatsua zer izan daitekeen. Niretzat, mamia, kontatzeko forman dago. Hartzen dituzun erabaki estetiko, literario eta formalak zu idazten ari zaren gaia bezain politikoak edo politikoagoak dira.

Bada Foster Wallaceren testu bat. Itsasoan, bi arrain gazte arrain zahar batekin gurutzatzen dira, eta zahar horrek esaten die: "Egun on, gazteok. Zer moduzkoa dago gaur ura?". Eta bi gazteek, dudatan, elkarrri: "Aizu, zer da ura?". Haiek ez dute urik ikusten guk ikusten dugun bezala. Sistema ekonomikoarekin gauza bera gertatzen da. Bada, uste dut literaturak eskaintzen duen begirada motak aukera ematen dizula natural eta normal ikusten dugunaren arrotasuna berreskuratzeko,



Laburrean

Zer duzu orain eskuartean? Eleberriaren bat?

Baditut pare bat ideia mahai gainean, elkarrizketan hitz egiten ditugun kontuekin loturikoak. Eskuartean dudan proiektu baten asmoa da gure bizitzaren alderdi zehatz bati begiratuta, alderdi zehatz horretatik harago doazenak askoz hobeto ulertzeko aukera zabaltzea. Gertatzen ari zaigunaz, gure bizimoduaz, eta areago, irtenbideari buruz hitz egiteko nondik begiratuko dudana bila nabil.

Zure liburuetatik zein iruditzen zaizu egokiena euskarara itzultzeko?

Ez dakit, agian *La mano invisible* (Seix Barral, 2011), "Esku ikusezina" eleberria litzateke, lan-munduari buruzko nobela. Hura da, idatzitakoan artean, egin nahi dudana horretara gehien hurbildu dena, eta, aldi berean, okerren eta gutxien irakurri dena.

Zure idazlerik gogokoena?

Idazten jarraitzeko arrazoietako bat Virginia Wolf da, eta, zehazki, *To the Lighthouse* (Farrantz) eleberria.

Zure azken aurkikuntza?

Izugarri gustatu zait, ez bainuen uste idazle ona izango zenik... Ethan Hawke aktorearen eleberria: *Bright Ray of Darkness* (Iluntasun tximista distiratsua). Gaztelaniaz, *Un brillante rayo de oscuridad* (Berenice, 2023). Antzerkiaren munduari buruz hitz egiten du.

Eta ipuin bat?

La noche bocarriba (Ahoz gora gaua), Julio Cortázarrena.

eta niri axola zaizkidan galderak sortzeko. Eta hori gehiago lortzen du *nola*-tik, *zer*-tik baino. Izan ere, literatura batzuei politikaren etiketa jartzen diegu, errealitatearen alderdi jakin batzuei begiratzen diegulako, edo gaiari edo pertsonaiei. Baina formalki kontserbadorea bada, horrek kaltegabe bihurtzen du azkenean.

Adibidez?

Hori oso ondo ikusten da zineman, zeinen erabakigarria den batzuetan kamera beste leku batean jartzea, eta bat-batean, jada ikusten ez duzun errealitate hori, nola beste era batera ikustea eragiten duen. Adibidez, Holokaustoaren gaiarekin, *Son of Saul* (Saulen semea) filmarekin hori gertatzen da. Film horretako zuzendariak plano laburra hartzen du, film osoan protagonista-aren aurpegia soilik ikusiko dugu, eta gainerako guztia planotik kanpo dago. Kasu horretan, plano bakarrik aldatuta, kontatzeko modua aldatuta, dena diferentea da.



Hartzen dituzun erabaki estetiko, literario eta formalak zu idazten ari zaren gaia bezain politikoak edo politikoagoak dira

Eta literaturan?

Literaturaren kasuan, eta gehien kontrolatzen dudana gaztelaniazko literaturari dagokionez, uste dut Latinoamerikan dauzkagula adibide interesgarrienak. Argigarria da, esaterako, indarkeriari buruz hitz egiten dute, ez dutela indarkeriari buruz hitz egiten, baizik eta idazkerak berak adierazten duela indarkeria. Izen batzuk aipatzeagatik, Monica Ojeda edo Emiliano Monjer ekarriko nituzke hona. Era guztietako indarkeria erretratatzeko abilezia dute, baina bortitza dena idazkera bera da, eta, ondorioz, irakurketa ere bai. Ni ere hori egiten saiatzen naiz, adibidez, prekarietatearekin, eta planteatzen dut, ez prekarietateaz idaztea, prekarietatea isladatzea baizik; hau da,



idazketa bera prekarioa izatea eta, beraz, irakurketa ere horrela izatea. Niretzat eskritura politikoa da, literalki, idazkera bera politikoa denean.

Literatura egiteaz aparte, politikari buruzko iritzi artikulua ere idazten dituzu, eta horri buruz galdetu nahi dizut. Nola ikusten duzu Espainiako Estatuko egoera politikoa? Kataluniako Urriaren 1eko ondorio politikoek estatuaren panorama politikoa berregituratu dutela dirudi, ezta?

Jakina, dena aldatu da, baina ez bakarrik Kataluniako prozesuagatik. Uste dut Urriaren 1ak lehenagotik zetorren lurralde-krisia erabat ireki duela. Ez da hutsetik sorturikoa, krisi sistemiko handiaren parte da. Krisi ekonomiko eta finantzariotik gentozen, krisi politiko eta instituzionaletik, non monarkia krisian sartzen



den erregearen abdikazioarekin... Bat-batean sistemaren elementu guztiak krisian sartzen dira aldi berean. Krisi horietako bat lurralde-krisia da, eta, diodan bezala, bat-batean garai politiko berri

bat markatzen du, krisi ugariko testuinguru batean. Horrek indar handiagoa ematen dio berez beste modu batean landu zitekeena baino, baina esan dezagun Estatuaren krisiaren ondorioz, beste zerbait bihurtzen dela.

Eta, zure iritziz, krisi horretan iltzaturik dago gizartea?

Krisi horietako bat ere ez dugu ganoraz itxi, dena ahal izan dugun moduan salbatu dugu, krisi politikoa erabat irekita dauka; lurralde-krisia ere ez da itxi, salbatu egin da, baina ez da itxi. Krisiaren ondorio batzuk konponbidean jartzen saiatzen ari dira, baina ez dugu lurralde-ereduaren sakoneko arazoa konpondu. Eta ez bakarrik ez dela konpondu; areago, tentsio handia jasaten ari da. Tentsio hori periferietatik zetorren, baina orain nazionalismo espainiar indartsu baten hazkundera gehitu da, lurralde-eredua aldatzeko prest ez dagoena. ●

torren, baina orain nazionalismo espainiar indartsu baten hazkundera gehitu da, lurralde-eredua aldatzeko prest ez dagoena. ●



Hitz gezidunak

URTEAREN SEIGARRAREN HILA ----- AGIRIAK	ZAINTZAI-LEEN GELA ----- TELEBISTA	PUNTU BATEN ALTITUDEA		BIZKARRE-ZURREKO SEGMENTU ----- EZER	SASKI HANDI ----- BELARKIA	IZAERA, ESENTZIA ----- TENTALDI
ABIATZEA ----- ZAZPIGARREN NOTA	NANOTESLA ----- EZKUTUA ZERAMAN ZERBITZARI	KILKERRAREN AHOTSA ----- GORPUTZ ZATI		DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA	PERTSONAREN IZENA ----- SALTO, JAIKI	LARRU ONDUAREN IFRENTZUA ----- MEHEA, ESTUA
EZEZKO ----- NAFARROAKO MENDIA	LEKU OROTAKO ----- AINHOA ... SOPRANO TOLOSARRA	BERRIRO ----- ATALA	LUZAIDAKO DANTZA ----- HARILA	LANDARE ALEDUNA ----- TXORI, UMEEN HIZKERAN	NAFARROAKO HERRIA ----- EUSKAL TELEBISTA	AIKIA
IZUTZERA BEHARTU	ARGI ----- PERTSONAREN ABIZENA	ARRAUNALDI BIZKORRA ----- DU, BERARI	LANTEGI ----- ZIRKONIOA	ZAINDARI ----- AZKEN LETRA	BAKOITZAK BI	TEMPERATURA ----- ZINTZO
ALDEI, OSPAI! ----- APAIZ	ARRAUNALDI BIZKORRA ----- DU, BERARI	LANTEGI ----- ZIRKONIOA	ZAINDARI ----- AZKEN LETRA	BAKOITZAK BI	BAKOITZAK BI	TEMPERATURA ----- ZINTZO
USTE, IKUSPUNTU ----- JAIOTZERA BEHARTU	ARRAUNALDI BIZKORRA ----- DU, BERARI	LANTEGI ----- ZIRKONIOA	ZAINDARI ----- AZKEN LETRA	BAKOITZAK BI	BAKOITZAK BI	TEMPERATURA ----- ZINTZO

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

		5	1	3		4
	9		7	1		
		9		6	5	
4	6	3		2		1
	2		9	4		3
	9	1		6		
9			2	4		6
3	1	2			7	
8			7	3	9	

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Burusoila, karsoila.
2. Oiloaren ar heldu.
3. Errenkada, lerro.
4. Azal.
5. Erregela, norma.

EBAZPENAK

8	4	7	6	7	3	6	9	2	1
3	1	2	9	5	8	4	7	6	8
9	7	5	2	4	1	8	6	3	3
7	6	7	1	3	6	2	4	8	8
5	2	8	1	9	4	4	7	3	6
4	3	8	2	7	9	1	5	1	5
1	3	4	9	8	2	6	5	7	7
6	5	9	4	7	3	1	8	2	2
2	8	7	5	1	6	3	9	4	4

V	A	N	I	B	I	Z	V	A	V	O	V	I	V	I
O	R	E	L	E	R	T	Z	I	R	I	R	I	I	I
T	R	O	I	L	E	R	T	A	V	A	D	E	A	V
S	O	V	A	P	V	N	V	X	J	T	T	U	T	
V	A	R	I	G	A	R	V	Z	V	A	V	U	Z	I
Z	R	I	Z	R	E	R	B	R	L	A	R	K	L	
V	V	R	T	V	A	R	O	R	O	E	Z	V	A	M
E	T	N	V	A	B	O	T	I	B	E	G	V	A	N
T	N	V	A	B	O	T	I	B	K	T	N	I	S	
V	A	R	E	N	E	R	E			O	I	V	A	
Z	A	K	V	A	T	Z	E	R	B	A	K	V	A	
I	Z	O								Z	E			



Anariren kontzertua, taldearekin, Donostiako Intxaurren Kultur Etxean, martxoaren 16an. Argazkiak: Juan G. Andrés

Azalberritzeko lekuek

UDANE BARINAGARREMENTERIA LAKA

Nerbio-sistema konplexua, zelula zerebralak hanketan, memoria daukan, kolorez eta formaz mudatzen den eskeleto bako animalia haserretua. Horiexek Maider Arregik Lekuek festivalaren XI. edizioari jarri dizkion hitzak, Ziortza Basterretxeak osatutako iruditeria janzten dutenak. Makrojaialdien itsasoan txikitasuna, autogestioa eta kolektibotasuna lako tentakuludun olagarro koloretsua ibili baita Gernika-Lumon, herria kulturaren tintaz betetzen.

Bariku iluntzearekin batera izan ditu aldi bereko mutazio batzuk animalia hasarretuak, eta animalia izu eta eder forma hartu du Lizeo Antzokiaren ohol-tzan, Anariren zazpigarren disko aurkezpenean.

Begiraden elkarrizketa motz baten ostean entzun dira lehen notak, diskoari hasiera ematen diotenak. Zirkulu-erdi forman dauden musikariak pixkanaka igo dira abestira. Parez pare, ilunpean, antzokiko besaulki aldra oharkabe bihurtu

gara zirkuluaren beste erdia. Foku batek seinalatzen du zirkuluaren erdi ez-zentriko bat, ahots ezagun baina berri bat argituta. Eta agertu da, horrela, inbokatuta bezala, ilargi erraldoi bat antzokian: tarteka ilgoran, oholtza gainera distiratsu eta ilunpea nare; tarteka ilbetea, kraterak bistan, hondamendi naturalizatuei eta norberarenei kantatuz.

Joaquin Pascual lagun, bata bestearen atzetik jo dituzte diskoko abestiak. Kantu desberdinen bilduma dinamikoa da diskoa, eta hala izan da zuzeneko ere. Hiru gitarrako tosta, teklatu eta biolinaren mugimenduek, baxu-bateriak eta aldizkako panderetak osatua. Ilgoran joan dira lehen bi blokeak. *Bunkerra I* abestiarekin, ahots-gitarraren bakan-tasunean, izoztuta bezala geratu gara fokupeari begira. Norbere bunkerren hormak eraiki ditu akordez Anarik. Publikoaren isiltasuna apurtuz lantzean entzuten diren estulek, aldemeneko bunkerretatik entzuten den giza zarata

ANARI
(LEKUEK FESTIBALA)

NOIZ: martxoak 22

NON: Gernika-Lumoko Lizeo Antzokia

horrek, bueltarazi gaitu antzokira. Hori baitu giza zaratak, bunker partikularretako hormen artetik sartzen dela, intimitate sortuz eta hautsiz aldi berean.

Hurrengo blokerako prestu, munduko jakinarazpenak desgaitzera zaramatzen enpatxu horri abesti bat dela esanez aurkeztu du Inmolazioa. Eta heldu da ilbetea. Txistuak, eskuak airean, txaloak eta ko-roak. Bete-beteta jarraitu du Vesna Vulovic-en. Baina tigrearen zauritik hazten diren loreak gainjarri zaizkio orain. Irribarre zabalez ikus daiteke Anari mikroa eskuan eta publikoa seinalatuz, irribarretsu mikroa lurrean utzi eta taldekideen parean gitarrarekin makurtuz. Eta nago, begirada irribarretsu horrek baduela zerbait orain arte ikusi bakoa; zazpigarren azalberritze honetan, azalari barrutik buelta emateko tresna bat izan dela desdramari lekua egitea. Bunkerreko paretetik nola, azalaren poroetatik sartzen den giza zarata horrekin azalberrituta, gorpuztu da soziopoetika. ●



Autorrealizazioa irakasgai



TRANSGRESIOA IRAKASGAI

**BELL HOOKS (ITZULPENA:
AMAIA APALAUZA OLLO)**

KATAKRAK, 2023

BESTIAK LIBURUTEGIA

Irakaskuntzan "aniztasuna" aski eza-guna den kontzeptua da, eta irakasleok (ez zara harrituko Bestiak liburutegian ere irakasleak badaudela jakitean) aniztasuna bermatzeko, askotan, ikasle talde heterogeneoak egiten saiatzen gara. Baina badugu desberdinen arteko zapalkuntzak ez betikotzeko tresnarik? Amaia Apalauza Ollok euskarara ekarri eta 2023an Katakrakek argitaratutako *Transgresioa irakasgai* liburuan, Bell Hooksek galdera horien eta beste hainbaten inguruan hausnarketa egiten du, saiakera eta elkarrizketak tartekatuta.

Hooksen haurtzaroan, Ameriketako Estatu Batuetan hezkuntza segregatua zenean, bere maistra guztiak beltzak ziren. Horrela izendatzen ez zuten

arren, pedagogia iraultzaile antikolonialista garatzen zuten eta, testuinguru horretan, eskolara joatea plazera zen Hooksentzat. Arraza-integrazioarekin, ordea, ikastetxe zurietan eskolak borrokarako espazioa izateari utzi zion, eta aurreiritzi arrazistak sendotzeko eta obediencia ikasteko leku bihurtu zen. Hezkuntzak kontrahegemonikoa izateari uko egin zion. Hauxe da liburuak iradokitzen duena: azaleko keinu progresistatik ihes egitea eta, horren ordez, pentsamendu kritikiko sakon bat eraikitzea, funtsezkoa baita hezkuntza askatzailea eratzeko.

Hemen ere, askotan, aniztasunaren irudi polita sortzea izaten da helburua, baina ez da erraza erresistentziarako pedagogia askatzailea topatzea. Horre-

tarako, Hooksek dioenez, irakasleek pedagogia konprometitua praktikatu beharko lukete. "Praxia" eskatzen du horrek, alegia, praktika eta hausnarketa aldi berean egitea klasean bertan zein klasetik kanpo. Baina, zoritxarrez, garai hartan eta oraindik ere, ez da irakasleak autorrealizatuak izatea eskatzen. Izan ere, hezkuntza sistemak oztopatu egiten du irakasleen autorrealizazioa.

Liburu hau eraldaketa sozialean aritzen den edozein pertsona edo kolektibori gomendatzen diogu. Guri, Bestiak liburutegiko kideoi behintzat, iruzkinak, asanbladak eta harremanak garatzeko gakoak eman dizkigute Hooksen hitzek. Animatzen zaituztegu pentsamendu kritikiko liluragarria eza-gutzera. ●



MUSIKA

Errekak ez du planeatzen



ERREKAK NOLA BANANAS

USOPOP, 2023

IKER BARANDIARAN

Garai batean, buruz genekizkien *The Dark Knight* filmeko Jokerren esaldi guztiak, “kaosaren agentea” zenez gero. Horrelakorik zuen, esaterako, bere jokabidea azaltzeko: “Plan bat duen tipo bat al dirudit? Badakizu zer naizen? Autoen atzetik korrika doan txakur bat. Ez nuke jakingo zer egin bat harapatuko banu. Asmorik gabe ari naiz. Mafiak planak ditu. Poliziak planak ditu. Gordonek planak ditu. Haiek makinatzen dute. Beren mundu txikiak kontrolatzeko makineria erabiltzen dute. Nik ez dut makinatzen. Saiatzen naiz irakasten egiten dutenei zein patetikoa den gauzak kontrolatzen saiatzea”.

Ez nago planen kontra, planak onak badira. Ordea, planeatzaile gehienak ez dira fin ibiltzen; haien iparrorratzekin ondokoaren bidea segi asmoz, zenbat eta zenbat diren arrakastaren bila galdu direnak. Berdin bizitzan, musikan, zein

politikan –azken atal hori beste baterako utziko dugu, badaezpada–.

Bananas taldearena da adibide. Planeatutakoaren oso kontra atera da, euskal *screamo*-ren onerako –*euskreamo* ere entzun dut hor nonbait–. Touche Amore taldearen estiloko bost kanta grabatzeko geratu ziren lagun batzuk, eta EP bat argitaratu: *Azal bat urdiña* (Autoekoizpena, 2018). Asmoa zuzeneko bakar bat ere ez ematea zen, baina zaleak txanpiñoiak nola ugaritu eta, kontzertua ez ezik, disko berri bat ere eskaini zieten, 2021ean, *Garun eta eztarri*.

Horrela bada, apur bat haien planen kontra, eta gogoaren kontra, beste zazpi pieza berri bildu ditu Donostiako boskotek. Lehendik Madeleine, Adrenalized, Yaw eta Hyedra gisako taldeetan aritutako bost mutilek –bai, taldearen izena hobetu zezaketen–, eremu berri batera eraman dute oraingoa haien lana,

poparen eta post-hardcorearen arteko eremu arrotzean nabigatuz.

Akaso ez da hain arraroa: eztarri urratuak, ukabilak eta auhenak, melodia basatiekin. Taldean abesteko eta maitatzeko musika da hardcorea, eta puristaren bati lar popero iruditu liezaiokeen arren, pogo eta izerdi egiteko musika aproposa eskaini dute *Errekak Nola* lanean.

Ohar txiki bat: Hardcoreak denetik duen arren, otoi, pogoia egiterakoan begiratu nor duzun ondoan. Bananaz beteta dago eszena, eta ez dadila egon ere publikoa. Zaindu dantzak, gune parte hartzaileak izan daitezten.

Disko labur eta hunkigarria da. Espero ez zutelako iritsi da. Planik gabe dagoelako da zintzoa, eta gertukoa. Bere esaldiak ahaztu arren, Jokerrekin jarraitzen dut nik. Eta Txemak taldearekin: “Batman zer? Batman sutara!”. ●

Euskal Herria a(ta)skatuta

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Ni ere han nengoen. Historikoa izan da pasa den asteburukoa. Agian, apika, akaso, ez dugu horrelakorik ikusiko beste 40 urtean eta, egia aitortzea nahi baduzue, ni pozik nengoke. Esan dudan bezala, bertan bainengoen: nazioarteko espazio estaziotik ere ikus zitekeen pasa den ostiralean Behobian sortu zen auto-pilaketa –zertaz ari nintzela uste zenuten ba?–; eta sakramentu guztiekin irentsi nuen, ni ere atasko bilakatzeraino, gauza jakina baita errepide kolapsatu batean besteen berebilek zu izorratzen zaituzten bezainbeste izorratzen diela besteei zure ibilgailuaren ipurdiari pegatuta ttur-ttur joan beharrak; hortaz, ardura partekatu behar da –edo kooperatibizatu, edo arduradunak saretu; zuen esku espresio txiripitiflautikoena aukeratzea–.

Guztion artean egin genuen, beraz. Gaindi ditzagun behingoz perspektiba individualistak, tamaina horretako gertakariak bestelako begirada eskatzten baitute: han, Kantauriren hegian,

Gipuzkoa, Lapurdi eta Nafarroa elkar-tzen diren puntuan, Faisaien uhartearen eta Faisan tabernaren artean, Gabriel Arestik bi estatuen arteko zubia pasatzean “Gora Euskadi askatuta!” aldarri egiten zuen inguru hartan, nazio mailako metafora berria burutu zen –irakurlearen esku uzten dut berriz ere zeregin hauetarako aditz *trendy*-ena aukeratzea: “gauzatu” edo “gorpuztu” ere onartzen dira–: Euskal Herri ataskatua.

Askatutik ataskatura, osagaiak ez dira berez asko-asko aldatzen. Portae-retan dago diferentzia. Emantzipazio nazionalak eta auto-ilara nazionalak, kontrakoa dirudien arren, antza baitute alde askotatik: bakarrik ezin dituzu sortu, jende pila batek parte hartu behar du posible izango bada; eta denek norabide bererantz abiatu behar dute; eta denek batera. Berekoikeriak markatzen du diferentzia, jakina denez auto-pilaketaren esentzia bakoitzak bere zilbor burujabeari begiratzean datzalako –gehi istripua eragitetik gertu dauden maniobrak egitean; eta pasa ezin den lekutik au-

rteratzen saiatzean; eta, labur esateko, listoetan listoena izaten ahalegintzean–.

Dinamika soziopolitikultural ataskatzaile horretan murgilduta dago, oi, gure herria, zeinak Guinness errekorren bat puskatuko baitu laster eztabaida bizantziarren kategorian. Astero produzitzen du baten bat, hasi 2024an erdaldunak deskubritu eta Euskal Herriari “euskararen herria” deitzea ez dela zuzena solemneki deklaratzeko duen artikulutik; segi euskara batua vs. euskalkiak ika-mikaren *round* berri bezain kitzikagarriagazzzZZZzzzzZZZ; igaro aurten kontu hauekin interesatzen den jende guztiaren wrapped-ean agertuko den lehia probintzianotik –gainera bertsio futbolzalea eta multi-kultia daukazu aukeran: denbora galtzeko gure produktuen ugaritasuna!–, eta horrela jarraitu ilarak Aturritik Ebrorainoko bide guztiak tapa-tapa eginda uzten dituen arte.

Behobiako atasko nazionalean behintzat, pozik zirudien pertsona bakarrak Bidasoako urak zeharkatuz aurreratu gintuen, banku mugikorrek kanoan. “A ze ergela: ez du ikusten norantz ari den arraunean”, esan zuen autoan egosten bi ordu zeramatzan bategen, bere proiektuaz oso konbentzita.

Portzierto, ondorengo egunetan ez da guztiz argitu zirkulazio-kaos horren egiletza. Medio ofizialek turisten pilaketa eta eltzetzu/hedexuriaren kontrol bat aipatu dituzte, baina ez dakit ba, nik ez nuen halakorik ikusi. Askoz posibleagoa iruditzen zait bidean iraulta geratu zen lehen autoak PSE-EEko lehendakariak kanpaina erabiliko duen furgonet... barka, “Enekoneta” pasatzen ikusi izana. Horrek eragingo zuen eusko gidariaren harridura. Horrek probokatuko, jarraian, eusko gidariaren barre algara kontrolaezina. Eta istripua, noski. Ez da asteotan ikusiko dugun bakarra izango. ●





Menda Bikoitza

Bi astelehenean behin
ARGIA eta audio
plataforma guztietan

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)

Garbiñe Larrearen podcasta

Sendabelarrei buruzko
bitxikeriak, erabilera
praktikoak eta elkarrizketak

 ARGIA



egonarrria

Lurrari entzuten dion saioa

Pilpilean diren gaiez elkarrizketak,
Eli Pagolak gidatuta platoan.

Laborarien esperientziak,
Mattin Jauregik jasoak landatik.

Asteazkenero argia.eus-en eta
plataforma guztietan

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)

Apirilak 3

**Zergatik igotzen dira
elikagaien prezioak?**

Juanma Intxaurrendieta

Apirilak 10

Ardo sektorea borborka

Esti Besa

Apirilak 17

**Baratze-oihanetik
burujabetzara**

Gorka Torre

Apirilak 24

**Euskolabel tomatea
hidroponikoa da**

Marta Barba

